



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko ekanaren 15a

48-1. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruzko fiskalizazio txostena, 2002tik 2005era bitarteko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bi aletan argitaratzen da, 48-1 eta 48-2. zenbakietan).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruzko fiskalizazio txostena, 2002tik 2005era bitarteko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2002tik 2005era bitarteko ekitaldietakoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruzko fiskalizazio txostena, 2002tik 2005era bitarteko ekitaldietakoa, Comptos Ganberak egina

48-1 ZENBAKIKO AURKIBIDEA

- | | |
|---|--|
| <p>I. Sarrera (4. or.).</p> <p>II. Helburua (4. or.).</p> <p>III. Norainokoa eta mugak (4. or.).</p> <p> III.1. Norainokoa (4. or.).</p> <p> III.2. Mugak (5. or.).</p> <p>IV. Ondorioak eta gomendioak (6. or.).</p> <p> IV.1. Nafarroako populazioari buruz, erreferentzia berezia eginez menpekotasuna duten biztanleei (I. gehigarria) (6. or.).</p> <p> IV.2. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren eskumenen oinarriko antolaketa (7. eta 8. taulak) (6. or.).</p> <p> IV.3. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren aurrekontu-likidazio bateratuen analisia (1. taulatik 4. taulare eta II.1 gehigarria) (7. or.).</p> <p> IV.4. Departamentuaren aurrekontuei buruzko adierazle ekonomikoak (II.1.C eranskina) (7. or.).</p> | <p> IV.5. Departamentuaren aurrekontu-programak (5. eta 6. taulak eta III. gehigarria) (8. or.).</p> <p> IV.6. Plangintza (V. gehigarria) (8. or.).</p> <p> IV.7. Langileak (9. taula eta VI. eta VII. gehigarriak) (9. or.).</p> <p> IV.8. Gizarte babesaren arloko gastua, menpekotasun egoeran daudenentzat (IV. gehigarria) (11. or.).</p> <p> IV.9. Zaharrak (X gehigarria) (12. or.).</p> <p> IV.10. Ezgaituak (XI. gehigarria) (17. or.).</p> <p> IV.11. Zaharrentzako eta ezgaituentzako zentroetako zorra aitortzea (IX.B gehigarria) (22. or.).</p> <p> IV.12. Larrialdietarako Telefono Zerbitzua (XII. gehigarria) (23. or.).</p> <p> IV.13. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua (XIII. gehigarria) (24. or.).</p> <p> IV.14. Gizarte zerbitzuen kalitatea eta ikuskapena (XIV. gehigarria) (25. or.).</p> <p>V. Amaierako ondorio gisa (26. or.).</p> <p>ERANSKINA. Informazio osagarria emateko taulak (28. or.).</p> <p> 1. taula. Departamentuak aitorturiko betebeharren 2002-2005 aldiko bilakaera, kapitulu ekonomikoen arabera (eurotan) (29. or.).</p> <p> 2. taula. Departamentuak aitorturiko eskubideen 2002-2005 aldiko bilakaera, kapitulu ekonomikoen arabera (eurotan) (29. or.).</p> <p> 3. taula. Erakunde autonomoen aitorturiko obligazioen 2002-2005 aldiko bilakaera (eurotan) (29. or.).</p> <p> 4. taula. Erakunde autonomoen eskubide ekonomikoen 2002-2005 aldiko bilakaera (eurotan) (29. or.).</p> |
|---|--|

5. taula. Departamentuko gastuen 2002-2005 aldiko bilakaera, aurrekontu programen arabera (eurotan) (30. or.).
6. taula. Aurrekontu programek departamentuaren guztizko gastuan daukaten garrantzi erlatiboa (31. or.).
- 7.a) taula. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko organigrama (2005) (32. or.).
- 7.b) taula. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko organigrama (2005) (32. or.).
- 8.a) taula. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren organigrama (2005) (33. or.).
- 8.b) taula. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren organigrama (2005) (33. or.).
9. taula. Plantilla organikoen bilakaera (2002tik 2005era) (34. or.).
10. taula. Lanerako prestatzeko zentroentzako dirulaguntzak (2002-2005) (34. or.).

GEHIGARRIAK

- I. gehigarria. Nafarroako populazioari buruzko estatistika datuak. Hirugarren adinari eta ezgaituei buruzko aipamen berezia (35. or.).
 - I.1. Nafarroako populazioa (35. or.).
 - I.2. Nafarroako hirugarren adineko populazioa (35. or.).
 - I.3. Nafarroan menpekotasuna dutenen populazioa (37. or.).
- II. gehigarria. Aurrekontu likidazioaren analisisa eta bilakaera (2002-2005) (38. or.).
 - II.1. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren aurrekontu likidazio bateratuaren bilakaera (2002-2005) (38. or.).
 - II.2. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko erakunde autonomoen aurrekontu likidazioaren bilakaera orokorra (2002-2005) (41. or.).
 - II.3. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren aurrekontu-likidazioaren bilakaerari buruzko alderdi bereziak (2002-2005) (43. or.).
- III. gehigarria. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren aurrekontu programen azterketa eta bilakaera (2002-2005) (45. or.).
 - III.1. Aurrekontu programak: jardueren kopurua eta definizioa (45. or.).
 - III.2. Programen aurrekontu likidazioa (46. or.).
- IV. gehigarria. Menpekotasuna dutenentzako gizarte babesaren arloko gastua eta haren bilakaera (2002-2005) (47. or.).
- V. gehigarria. Plangintza estrategikoa (52. or.).

I. SARRERA

2005eko apirilaren 14an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen Comptos Ganberari eskatzea “Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruzko fiskalizazio txosten bat” egin zezan. Hain zuzen ere, honela zioen erabakiak hitzez hitz:

“Nafarroako Parlamentuak Comptos Ganbera premiatzen du kudeaketari buruzko auditoria-lan bat egin dezan Gizarte Ongizate Departamentuan, 2002tik gaur egunera artekoa, zeinak bereziki aztertuko dituen hirugarren adinekoei, ezgaituei eta era guztietako mendekotasunei zuzenduriko laguntzarako zentro bereki eta itunduen inbertsio eta kudeaketa programak.”

Parlamentuak eginiko eskariaren zabala ikusita, Comptos Ganberako lehendakariak, 2005eko azaroan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruzko fiskalizazio txostenaren plangintzaren oroitidazkiaren aurrerapena igorri zuen. 2005eko azaroaren 21ean, Parlamentuko Mahaiak Eledunen Batzarrari entzun eta oroitidazki horrekin bat zetorrela adierazi zuen.

Bestalde, 2004ko ekainaren 14an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen ekimenez, erabaki zuen ganbera honi eskatzea Tasubinsa enpresari emaniko laguntzei buruzko fiskalizazio txosten bat egin zezan. Laguntza horien izaera –lanerako prestatzeko zentroentzako dirulaguntzak– aurreko eskaeraren baitan ere sartzen denez, txosten honetan espresuki sartu dira 2005eko ekitaldirako emaniko laguntzen jarraipena eta kontrola.

Lanen hasiera 2005erako fiskalizazio-programan sartu zuen ganbera honek, eta txostenaren amaiera, berriz, 2006ko programan jaso zuen.

Europako Kontseiluaren arabera, menpekotasuna hau da: “pertsonek egoera, non autonomia fisiko, psikiko zein adimenekoa galtzearekin loturiko arrazoiengatik, eguneroko bizitzako ekintza arruntak egiteko laguntza handia behar duten”. Honakoak hartzen dira eguneroko jardueratzat:

- Nork bere burua zaintzearekin zerikusia duten jarduerak (garbitzea, jatea, janzea...)
- Etxean duen mugikortasuna.
- Etxeko lanak (erosketak, garbiketa...)
- Etxez kanpoko mugikortasuna.

Aurreko definizioaren arabera, beraz, hiru faktore egokitu behar dira batera menpekotasun egoeraz hitz egin ahal izateko:

- a) Pertsonek gaitasunak urritzen dituen muga fisiko, psikiko edo adimenekoa izatea.
- b) Norbera gauza ez izatea eguneroko jarduerak bakarrik egiteko.
- c) Hirugarren baten laguntza edo zaintza behar izatea.

II. HELBURUA

Parlamentuaren aurreko eskaerak betetzeko eta Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2005 eta 2006 urteetarako jarduketa programetan sartu da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari buruzko fiskalizazio txostena, 2002ko ekitalditik 2005ekora bitarte hain zuzen.

Eginiko lanak helburu hauek ditu:

1. helburua. Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren kudeaketa osoki ebaluatzea, bereziki kontuan hartuz menpekotasunaren arloko gizarte zerbitzuak.

2. helburua. Menpekotasunaren arloko gizarte zerbitzu horiek emateko moduak ekonomikoki ebaluatzea.

3. helburua. Departamentuak menpekotasunaren arloan plangintzarako dituen tresnak zenbateraino bete diren aztertzea.

Txostenari erantsi zaizkio departamentuaren kudeaketa hobetze aldera komenigarritzat jotzen diren gomendioak.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. NORAINOKOA

Gure lanak, aurreko helburuak kontuan hartuta, lehenbizi, aztertutako epean departamentuak izan duen aurrekontu-bilakaera –gastuak eta dirusarrerak osoki hartuta– aztertu du, bai eta departamentuaren antolamendu-egitura eta politika estrategikoak ere. Hurrengo, eta departamentua bera eta Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI) aztergai hartuta, beste gai batzuk aztertu dira: langileen kudeaketa, antolamendua eta inbertsioak eta dirusarrerak. Era berean, Parlamentuaren eskaria interpretatuz eta menpekotasunaren definizioa abiapuntu hartuta, lanak honako aurrekontu-programen kudeaketa berrikusi du:

1. Azterlanak, plangintza eta obrak.
2. Hirugarren adina.

3. Ezgaituak.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoretzako printzipio eta arauak" aplikatu dira; printzipio eta arau horiek ganbera honetako auditoria programan jasota ageri dira.

Zehazki, berrikusitako eginkizun eta programa bakoitzean, honakoak aztertu dira:

a) Aurrekontuari buruzko informazioa:

• Aurrekontuen bilakaera eta departamentuaren eta Gizarte Ongizatearen Institutuaren likidazioa.

• Urteko oroitidazkien azterketa.

b) Langileak eta antolamendua:

• Plantilla organikoen azterketa eta zerbitzua ematen duten langileena.

• Ordainsarien politika orokorra.

• Antolaketa-egitura.

c) Azterlanak, plangintza eta obrak:

• Plangintza eta eskari-azterketak.

• Inbertsioen jarraipena.

• Inbertsioetarako dirulaguntzak.

d) Hirugarren adina.

• Egonaldiak laguntza-zentroetan (bereetan, itunduetan eta bereak ez direnetan).

• Larrialdietarako telefono-zerbitzua.

• Etxez etxeko arreta emateko laguntzak.

• Dirusarrerak eta zor-aitorpena.

Honakoak ez dira aztertu: kotizazio gabeko pentsioak, termalismoa, laguntza bereziak eta elkarte nahiz klubentzako dirulaguntzak.

e) Ezgaituak:

• Egonaldiak laguntza-zentroetan (bereetan, itunduetan eta bereak ez direnetan).

• Lanerako prestatzeko zentroak. Tasubinsari emaniko laguntzen aipamen berezia.

• Larrialdietarako telefono-zerbitzua.

• Etxez etxeko arreta emateko laguntzak.

• Dirusarrerak eta zor-aitorpena.

Honakoak ez dira aztertu: kotizazio gabeko pentsioak, errehabilitazio psikosozialeko zentroak, tratamendu bereziak, laguntza bereziak eta elkarte nahiz klubentzako dirulaguntzak.

Gure azterketarako erabili dugun informazioak honakoak izan ditu, bereziki, oinarri:

• Aurrekontu-betetzeak (2002-2005)

• Departamentuaren eta NGOiren oroitidazkiak (2002-2004).

• NGOiren aginte-koadroa 2005erako.

• Departamentuaren eta NGOiren zenbait azterlan eta argitalpen.

• Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak menpekotasunari buruz argitaratutako liburu zuria.

• Nafarroako Estatistika Institutuaren eta Estatistika Institutu Nazionalaren datu estatistikoak.

• Departamentuko eta NGOiko zerbitzuei ganbera honek eskatu dizkien zenbait txosten eta datu.

III.2. MUGAK

Gure lanak ondoko mugak izan ditu:

• Zailtasunak izan ditugu aurrekontuen bilakaerari buruzko azterketak egitean; izan ere, berrikusitako urteetan, aldaketak izan dituzte antolamendu-egituretan hala departamentuak nola Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak. Aldaketa horiek funtsezko aldaketak eragin dituzte aurrekontu-programetan, bai programen kopuruan bai horien eduki zehatzean; bereziki azpimarragarriak izan dira 2005eko ekitaldian izandakoak.

• Gizarte politika zehatz bati lotutako jarduketa eta gastu multzo bat ez da beti aurrekontu programa bakar batean jasota ageri. Horrek zaildu egiten du politika horri atxikiriko gastua orotara zenbatekoa izan den jakitea; izan ere, zerikusia duten programetako aurrekontuetan ez dago beti jakiterik gastuaren xedea zein den.

• Menpekotasunetarako gastuen azterketa zehatzean, berrikusi dugun epean plangintza estrategikorik ez egoteak mugatu egin du lortu nahi ziren helburuen eta horien betetze mailaren azterketa.

• Informazio sistematik ez egoteak zenbait magnitude eta prestazioen zuzeneko kostuaren kalkulua egitea zaildu du, langile gastuak egozteko bereziki.

• Kostuen banaketa sistematik ez dagoenez, ezin izan dugu zeharkako gastuen eta zama orokorren banaketa arrazionalik egin, eta ezin izan dugu jakin emaniko prestazioaren benetako kostua; horrenbestez, kalkulaturako gastuak prestazioari zuzenean egotz dakizkion eta berarekin identifi-

ka daitezkeen aurrekontu-gastuak islatu besterik ez du egiten.

- Zaila izan da prestazioak adierazleen bitartez aztertzea eta beste erkidego nahiz gure inguruko beste herrialde batzuekin edo balio estandarrekin alderatzea; batzuetan, halakorik ez dagoelako zenbait gizarte politika zehaztutarako, eta, beste batzuetan, administrazioen artean homogeneousunik ez dagoelako horien definizioan eta kalkulatzeko moduan.

Muga horiekin guztiakin ere, lana jarduketa mota honetan ohikoa den metodologiarekin egina da eta, horrenbestez, lortutako datuek eta ondorioek arrazoizko bermea dute.

Txostena lau ataletan banatua dago, eta, horietan, xedeaz eta aplikatutako metodologiaren gainera, ateratako ondorioak eta emandako gomendioak ere agertzen dira. Atal horiek osatzeko, bada eranskin bat informazio osagarriko taulak dituena, bai eta 14 eranskin ere, iruzkin eta ondorio orokorrak osatzen dituztenak.

Azterketa-lana 2005eko azarotik 2006ko ekainera bitarte egin zuen auditoriako lau teknikariek eta auditore batek osatutako talde batek, Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentuko eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko langileei eskerrak ematen dizkiegu txosten hau prestatzean eman diguten laguntzagatik.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanaren iruzkin, ondorio eta gomendio nagusiak azaltzen ditugu. Haiei buruzko xehetasunak eta informazio osagarria kasuko gehigarrietan jaso ditugu.

IV.1. NAFARROAKO POPULAZIOARI BURUZ, ERREFERENTZIA BEREZIA EGINEZ MENPEKOTASUNA DUTEN BIZTANLEEI (I. gehigarria).

1. Nafarroako populazioak, 2002tik 2005era, ehuneko 4ko hazkundea izan du, eta 593.472 biztanle izatera iritsi da. 2020rako aurreikusita dago populazio horrek ehuneko 18 inguru gora egitea, Espainiako populazio osoaren hazkundearen ia bi halako.

2. Jaiotzen denean Nafarroako populazioaren bizi-itxaropena (2002ko datuen arabera) 84,5 urtekoa da emakumeen kasuan eta 77,3 urtekoa gizonen kasuan. Datu horiek urtebete inguru altuagoak dira batez besteko nazionala baino.

3. 65 urtetik gorako Nafarroako populazioa guztizkoaren ehuneko 17,46 da: 2005ean 103,637 biztanle dira; ehuneko hori Espainiako batez bestekoaren eta Europar Batasuneko batez bestekoaren gainetik dago.

4. 85 urtetik gorako Nafarroako populazioak 13.339 pertsona egiten du 2005ean, hau da Nafarroako populazio guztiaren ehuneko 2,25 –Espainiako batez bestekoaren 1,84 baino ez da–, eta 65 urtetik gorako populazioaren ehuneko 13.

5. 2020ko ekitaldira arte eginiko kalkuluen arabera, Nafarroako 65 urtetik gorako populazioa ehuneko 21 inguru haziko da, eta 126.000 pertsonakoa izatera iritsiko da. Eta populazio horren barrenean, 85 urtetik gorakoak ehuneko 69 egiten du gora, eta 22.500 pertsona izanen dira.

6. Nafarroan ezgaitasuna duten pertsonen populazioak ehuneko 12 egin du gora 2002tik 2005era, eta 31.346 pertsona dira; hau da, populazio osoaren ehuneko 5,28. Ezgaituen guztizkotik, ehuneko 43k 65 urte baino gehiago ditu, eta kopuru horrek 2002tik 2005era ehuneko 19 egin du gora.

IV.2. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUAREN ESKUMENEN OINARRIZKO ANTOLAKETA (7. eta 8. taulak).

7. Bere jarduera betetzeko xedearekin, Departamentuak honako antolaketa dauka:

- Departamentua: haren eginkizunak, idazkari-tza teknikoari esleituriko orokorrekin gainera, bi zuzendaritza nagusitan banatuta daude –Gizarte Ongizatekoa eta Familiakoa–, eta funtsean honakoei dagozkie: jardueren plangintza eta kontrola egitea, inbertsioen politika eta kudeaketa, zentron gaineko ebaluazioa eta kontrola, garapenerako nazioarteko lankidetzak eta familiaren eta haurren arreta integrala.

- Departamentuak hiru erakunde autonomo ditu: Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua eta Nafarroako Emakumearen Institutua. Azken bi erakunde horiei esleitutako funtzioak izenei dagozkienak dira, hau da, gazteria eta kirola sustatzea eta emakumearen aurkako bazterkeria modu guztiak deuseztatzea.

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, funtsean, menpekotasun egoeran daudenei (hirugarren adinekoak eta ezgaituak) laguntza emateko eta haiek gizarteratzeko politikak eta haurtzaindegiak kudeatzeaz arduratzen da.

IV.3. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMANTUAREN AURREKONTULIKIDAZIO BATERATUEN ANALISIA (1. taulatik 4. taulara eta II.1 gehigarria).

8. Departamentuak aztertutako aldiari aitorturiko betebeharrak ehuneko 24 handitu dira, termino arruntetan, eta 2005. urtean 197. milioi euro egiten dute; euro konstanteetan, berriz, hazkunde hori ehuneko 13koa da. Bi ehuneko horiek Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorretarako lortutakoak baino txikiagoak dira (ehuneko 29 eta 17, hurrenez hurren)⁽¹⁾.

9. Kapitulu ekonomikoen arabera, gastuaren ehuneko 90 arrunta da; azpimarratzekoak dira transferentzia arruntan eta langileriaren arloko gastuak, guztizkoaren ehuneko 72 eta 14 egiten dutenak.

10. Departamentuaren aitorturiko eskubideek ehuneko 42 egin dute gora 2002an eta 2005ean, eta 11 milioi eurotan finkatu dira; termino konstanteetan, berriz, hazkunde hori ehuneko 29koa izan da.

11. Eskubide horiek ia guztiak arruntak dira, eta tasa eta nagusiki prezio publikoen kapituluei -guztizkoaren ehuneko 76- eta transferentzia arruntei -ehuneko 24- dagozkie.

12. Departamentuaren dirusarreraren ehuneko 70 eta 96 haren erakunde autonomoek kudeatzen dituzte: Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI), Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI) eta Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI). Erakunde autonomo horien barrenean, NGOIk departamentuaren gastu guztien ehuneko 57 eta 81 kudeatzen ditu.

13. Nafarroako aurrekontu orokorrei dagokienez, Departamentuaren gastuek, aztertutako aldiari, ehuneko 6 egiten dute, eta dirusarrerak, berriz, ehuneko 0,3.

IV.4. DEPARTAMANTUAREN AURREKONTU-
EI BURUZKO ADIERAZLE EKONOMIKOAK (II.1.C
eranskina).

14. Ondoko taulan, aurrekontu-informazioari buruz lorturiko adierazle nagusiak eta adierazle horiek 2002tik 2005era bitarte izan duten bilakaera erakusten dira.

Adierazlea	2002	2005	Aldea (%)
Biztanle bakoitzeko gastua, guztira (euro korrontetan)	278,78	332,34	19
Bare produktu gordinaren aldean izaniko guztizko gastua (ehunekotan)	1,27	1,27	-
Bare produktu gordinaren aldean izaniko gastu arrunta (ehunekotan)	1,06	1,15	8
Gastu arrunta tasen eta prezio publikoen ⁽²⁾ bidezko dirusarrerekin noraino estaltzen den (ehunekotan).	4,3	4,7	9

- Departamentuaren biztanle bakoitzeko guztizko gastuak ehuneko 19 egin du gora, termino korrontetan, eta 2005ean biztanleko 332,34 eurokoa da; euro konstantetan, berriz, hazkunde hori ehuneko 9koa izan da.

- Nafarroako BPGaren aldean, guztizko gastua aztertutako aldiari zehar izaniko kopuru berdinetan jarraitzen du -ehuneko 1,27-. Hau da, Nafarroako biztanle bakoitzeko sorturiko aberastasunetik,

ehuneko hori departamentuaren gastuak finantzatzera bideratzen da.

- BPGaren gaineko gastuak ehuneko 8 egin du gora; 2005ean, Nafarroako BPGaren ehuneko 1,15 da.

- Erabiltzaileek departamentuaren gastu arruntak finantzatzeko jarritako dirusarrerak ehuneko 9 egin dute gora 2002tik 2005era. Hala eta guztiz ere, ekarpen horiek guztizko gastu arruntaren ehuneko 5 inguru estaltzen dute.

(1) 2005erako Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-zenbetekoekin eginiko konparazio guztiak ekitaldi horretan aplikaturiko kontabilitate irizpideak ukituta daude; izan ere, aurrekontu horri "gastu fiskalak" izenez ezagutzen direnetatik ondorioztatutako gastu eta dirusarreraren aurrekontua egotzi zaio.

(2) Adierazle horren balioa itunetako gastuetan aplikaturiko kontabilitate irizpideak ukituta dago, zeren eta IV.9 eta IV.10 ataletan adierazten den bezala, gastu horien zenbateko garbia -hau da, behin erabiltzailearen ekarpenak kendu eta ondorengo zenbatekoa- egotzen baitaio aurrekontu horri.

IV.5. DEPARTAMENTUAREN AURREKONTU-PROGRAMAK (5. eta 6. taulak eta III. gehigarria).

15. 2002an, departamentuaren aurrekontua, guztira, 10 aurrekontu-programatan banakatu zen; haren berregituratze organikoen ondorioz, 2005ean programa horiek 12 ziren. Berregituratze horiek direla eta, ondokoak nabarmendu behar ditugu:

- Familia Zuzendaritza Nagusiaren sorrera. Departamentuari atxiki zitzaion, eta bere gain hartu zituen aurretik NGOik kudeatzen zituen politika batzuk, zehazki familiari laguntzekoak eta adingabeak babestekoak.

- NGOIn, laguntza soziosanitarioko beste programa bat ezarri zen, hirugarren adinari eta ezgaituei buruzko aurretik zeuden programa berariazkoak bateratuz.

16. Nafarroako Gobernuaren gainerako programekin gertatzen den bezala, eta ganbera honek bere txostenetan adierazi izan duen bezala, aurrekontu-programa horiek ez dute, oro har, zenbatesitako helburuen definiziorik, ez dute haien eta dagozkien aurrekontu-kredituen arteko loturarik, ez dute adierazle neurgarriak, eta ez dute, finean, helburu horien betetzeari buruzko jarraipenik.

Politika	2002	2005
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	15	17
Azterlanak, plangintza eta obrak	10	7
Familia eta adingabeak	13	16
Menpekotasuna	27	28
Gizarteratzea	12	13
Kotizazio gabeko pentsioak	9	7
Emakumea	1	1
Kirol eta Gazteria	13	11
Guztira	100 euro	100 euro

Departamentuaren gastu-politiketan nolabaiteko joera egonkorra mantentzea; horiek gastuaren ia ehuneko 75 azaltzen duten lau arlo handitan oinarritzen dira: zerbitzu orokorrak, familia, menpekotasuna eta gizarteratzea.

IV.6. PLANGINTZA (V. gehigarria)

20. Gaur egun, egin gabe dago departamentuak garatu behar dituen politika eta jardueri buruzko plan estrategikoa; halaber, bukatu gabe daude II. plan gerontologikoa eta ezgaitasuna duten pertsonen laguntza emateko plan integrala; bestalde, eskura dauzkagu, jada, egungo egoerari buruzko diagnostia egiteko alde aurretiko azterlanak. Ez dago, ezta ere, zuzeneko inbertsioei edo kapital

17. Bestalde, politika zehatz batekin loturiko jarduketa eta jardueren gastu guztiak ez zaizkio aurrekontuetan beren programari egozten, eta horrekin zailagoa da departamentuak politika jakin horretan betetako gastu erreala zehaztea.

Gomendatzen dugu aztertzea, Nafarroako Gobernuaren testuinguru orokorrean, programen araberrako egungo aurrekontuak benetan erabilgarriak diren.

18. Helburuen aurrekontu-jarraipenari eta politiken kostuari buruzko gabeziei, oro har, konponbidea ematen zaie txostenak eta aginte-mahaiak sortuz. Hala eta guztiz ere, ez dago jasota zuzeneko kostuak kalkulatzeko sistemarik, ez eta zeharkako kostuak eta zama orokorrak banatzeko irizpiderik, prestazioen eta haien emaitzen kostu erreala zehaztu ahal izateko.

Kudeaketarako informazio sistema bat diseinatzea gomendatzen dugu, haren bitartez zuzeneko eta zeharkako kostuak, prozesuak eta lortutako emaitzak neurtzeko.

19. Aurreko atalak kontuan hartuta, ondoko taulan erakusten dugu departamentuak gastaturiko 100 euro bakoitzeko aurrekontu-programaren araberrako erabilera.

transferentzien bidezko inbertsioei buruzko plangintzarik.

Gomendatzen dugu departamentuari eta NGOIri esleituriko lanaren ildo estrategikoak definitzea. Etorkizuneko garapen horrek, gure iritziz, bere baitan hartu beharko lituzke Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haien laguntza emateari buruzko Legea (Menpekotasunari buruzko Legea) eta hura foru esparruari egokitzeko arauak.

Txosten hau idazteko denboran, Nafarroako Gobernuak Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektua onetsi du -2006ko irailean-; proiektu horretan aurreikusita dago gizarte zerbitzuei buruzko plan estrategikoa bat egitea urtebeteko epean.

IV.7. LANGILEAK (9. taula eta VI. eta VII. gehigarriak).

21. Departamentuaren eta NGOIren plantilla organikoetan aurreikusitako lanpostuen guztizko kopuruak ehuneko 6 egin du behera 2002tik 2005era; 2005ean 673 lanpostu daude guztira, hau da, 2002an baino 40 gutxiago. Lanpostu horietatik guztietatik, 2005ean 216 -hau da ehuneko 32- hutsik daude; 2002rekin alderatuta, berriz, lanpostu hutsek ehuneko 53 egin dute gora, eta lan-

gile finkoen (funtzionarioak eta lan kontratupeko langileak) kopuruak, aldiz, ehuneko 21 egin du behera.

22. Mailen araberrako atxikipenari dagokionez, ehuneko 28 A eta B maileri zegozkien 2005ean; 2002an, aldiz, A eta B mailako lanpostuak ehuneko 24 ziren.

23. 2005eko abenduaren 31n, departamentuan eta NGOIn 654 pertsonen egiten zuten lan, honela banaturik:

	Departamentua	NGOI	Guztira
Finkoak	52	392	444
Behin-behinekoak	7	5	12
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak.	19	179	198
Langile efektiboak, guztira	78	576	654
2005eko plantilla organikoko lanpostuak, guztira	82	591	673

Horiek azterturik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

- Langile efektiboaren kopurua plantillan aurreikusitako lanpostu guztien ehuneko 97 inguru da.
- Lanpostu hutsen ehuneko 92 aldi baterako beteta daude, eta NGOIn, funtsean, aldi baterako langileak ehuneko 30 dira.
- 2005eko enplegu eskaintzak, guztira, 168 lanpostu jasotzen ditu; hau da, lanpostu hutsen ehuneko 86.

Gomendatzen dugu 2005eko eskaintza publikoan jasotako politikarekin jarraitzea, aldi baterako langileen tasa gutxitzeko, bereziki egiturazkoak diren lanpostuei dagokienez.

24. Bere funtzioak betetzeko, NGOIk prozedurari buruzko eskuliburu batzuk dauzka, administrazio-prozesu nagusiak garatzen dituztenak. Bestalde, eginkizunak bulegoari esleitzerakoan, ez dira beti egitura organikoaren aldaketak gaurkotu eta egokitu. Halaber, antzeman da hainbat atal eta bulegok kasuko buruari dagokion lanpostua baino ez dutela.

25. Lanaren helburuarekin -menpekotasunaberariak lotuta dauden administrazio jardueraren adierazle gisa, ondoko informazioa erantsi dugu, NGOIk 2005erako zeukan aginte-mahaiaren arabera.

Eskaria	2005ean bizirik dauden ebazpenak		%, ebazpen guztien gainekoa		%, ebazpen guztien gainekoa		Egun kopuruaren batez bestekoa
		Ebazpenak	Ebazpenak	Emandakoak	Ebazpenak	Emandakoak	
Etxez etxeko diru laguntza.	971	915	94	405	44	35	
Egoitzetako egonaldia. Zaharrak	1.060	810	76	662	82	47	
Egoitzetako egonaldia. Ezgaituak.	123	108	88	94	87	66	
Minusbaliotasunaren aitortzea	2.721	2.269	83	1.441	64	-	
Erretiroarengatikotiazio gabeko pentsioak	246	226	92	169	75	65	
Erretiroarengatikotiazio gabeko pentsioak	97	89	92	67	75	43	

• Oro har, ebazpenaren ebazpenen ehuneko handia da, zaharrentzako egoitzetako egonaldien salbuespenarekin; izan ere, horietan erabiltzaileari informazio osagarria eskatzeak luzeago egiten du ebazteko prozesu administratiboa.

• Onartutako eskarien ehunekoak behera egin du minusbaliotasunak aitortzeari dagokionez eta etxeko laguntza ekonomikoari dagokionez.

• Izapidetzearen batez besteko epeetan, luzeak izateagatik nabarmendu behar dira ezgaituentzako egoitzetako egonaldiei buruzkoak eta erretiroarengatikotiazio gabeko pentsioei buruzkoak.

26. Langileen absentismoa. Ez dago homogeneotasunik departamentuaren eta NGOIren artean langileen absentismo-maila zehazteko garaian. Egoera horrek, eta bi entitate horiek garatu beha-

rreko jarduerak ezberdinak izateak, nolabait ere desitxuratu egiten du antzemandako absentismo-kopuruen konparazioa. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da NGOIren egoitzetan antzemandako absentismo maila, ehuneko 15aren ingurukoa baita.

Gomendatzen dugu departamentuko eta haren erakunde autonomoetako langileen absentismoa zehazteko prozedura homogeen bat erabiltzea, bai eta egoitzetan antzemandako absentismoa eragiten duten arrazoen azterketa egitea ere; betiere, kasua bada, kudeaketa mailan behar diren neurriak ezarriko dira.

27. Langileen prestakuntza. Departamentuko langileen prestakuntza NAPIren plan orokorretara mugatuta dago. 2005ean, NGOIk prestakuntza plan berriazko bat ezarri du bere langileentzat; hartan, 32 prestakuntza-ekintza garatu dira –aurreikusitako ikastaroen ehuneko 49– eta 782 langileri eman zaio prestakuntza, hau da, aurreikusitakoaren ehuneko 44ri; horri buruz eginiko jarraipenaren arabera, antzeman da hobetu daitezkeen alderdi batzuk badaudela, hartzaileen eta NGOIren interesetatik hurbilago dauden edukiak garatzeari dagokionez eta inplikaturiko unitateen koordinazioa hobetzeari dagokionez, batez ere.

Gomendatzen dugu 2005ean NGOIn hasitako prestakuntza planaren prozesuarekin jarraitzea, behar diren kudeaketa neurriak aplikatuz antzemandako gabeziei konponbidea emateko, haien kostu finantzarioari buruzko informazioa jasoz eta garaturiko prestakuntza ekintzen erabilgarritasunari eta eraginkortasunari buruzko adierazleak aplikatuz.

28. Zaharrentzako eta ezgaituentzako egoitzetako langileen ordainsariak eta lanaldia. Eginiko azterketan, arlo horiei buruzko araupetze bat baino gehiago topatu dugu:

- Nafarroako Gobernuaren egoitzak, oro har, langile publikoen legediaren arabera araututa daude.

- Ezgaituentzako kudeaketa pribatuko egoitza publikoak eta egoitza itunduak 2005etik foru erkidegoarentzako hitzarmen sektorial baten arabera araututa daude.

- Gainerako egoitzak sektoreko hitzarmen partikular edo/eta orokorrekin araututa daude.

Araupetzeen aniztasun horrek nabarmentzeko moduko eragina dauka laguntzarako egoitzen egonaldien kostuan, gero aztertuko dugun bezala, zeren eta langile gastua baita egonaldien kostuan eragin handiena duena.

29. Ordainsarien artean eginiko konparazioa egin ondoren, eta konparazio horrek dauzkan muga guztiekin, ondoko alderdiak adierazi nahi ditugu:

- Ezgaituekin lan egiten dutenen kasuan, Nafarroako Gobernuak langileei aplikatzen dizkien lansariak, oro har, ehuneko 6 handiagoak dira monitorentzat eta ehuneko 44 handiagoak goi mailako titulua dutenentzat foru erkidegoko hitzarmen sektorialaren arabera aplikatzen direnak baino; zerbitzu orokorretako langileen kasuan, ordea, ehuneko 33 txikiagoak dira.

- Zaharrekin lan egiten dutenen kasuan, Nafarroako Gobernuaren egoitzetako eta besteren egoitzetako lanpostuen arteko konparazioa egin da, antzeman dugu alde handiak daudela azterturiko hiru kategorietan; hartara, zaharren zaindari eta OLT lanpostuetan, gobernua ematen dituen lansariak ehuneko 20tik ehuneko 30era bitarte handiagoak dira; sendagileen kasuan, ordainsari publikoak ehuneko 3 inguru handiagoak dira, batez beste, baina batetik bestera alde handiak daude: ehuneko 33 handiagoak izatetik ehuneko 14 txikiagoak izatera, hain zuzen.

- Lanaldiari dagokionez, ondoko taulan azalzen dira 2005ean aplikaturiko urteko orduak, berriazko araupetzearen arabera. Oro har, langile publikoei aplikaturiko lanaldia nabarmen txikiagoa da gainerakoei aplikatutakoa baino.

Araudia	Lanaldia	Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandak	Gaueko txanda finkoa
Nafarroako Gobernua	1.592	1.457	1.535
Foru erkidegoko ezgaituen arlorako hitzarmena	1.672	1.552	1.530
Zaharren arlorako nazioko hitzarmena	1.792		

Gomendatzen dugu aztertzea ea lan arloan araupetzeari dagokionez dagoen aniztasunak aipatzeko moduko eragina duen laguntza ematekoan –bai erabiltzailearentzat, bai Nafarroako Gobernuarentzat– eta laguntza horren kalitatean.

terakoan –bai erabiltzailearentzat, bai Nafarroako Gobernuarentzat– eta laguntza horren kalitatean.

IV.8. GIZARTE BABESAREN ARLOKO GASTUA, MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDENENTZATZAT (IV. gehigarria).

30. Menpekotasun egoeran daudenentzako gizarte babesaren arloko gastua –funtsean NGO-iren eskumena da– 2002tik 2005era ehuneko 6 inguru egin du gora, eta azken ekitaldian 86,43 milioi eurokoa izan da; hala eta guztiz ere, euro konstantetan, ehuneko 4 egin du behera.

2005/2002 aldaketa, ehunekotan	
Menpekotasuna dutenentzako gastua	
Arrunta	6
Konstantea	(4)
Departamentuaren gastua	
Arrunta	24
Konstantea	13
Nafarroako Gobernuaren gastua	
Arrunta	29
Konstantea	17

32. Aurreko gastutik ondoko adierazleak eta bilakaera ondoriozta daitezke:

Adierazlea	2002	2005	Aldea (%)
Biztanle bakoitzeko gastua, menpekotasunaren arlorako (euro korrontetan)	143,44	145,63	2
Barne produktu gordinaren aldean izaniko gastu korrontea, menpekotasunaren arlorako (ehunekotan)	0,65	0,56	(14)
Barne produktu gordinaren aldean izaniko gastu arrunta, menpekotasunaren arlorako (ehunekotan)	0,53	0,48	(9)
Menpekotasunaren arlorako gastu arrunta tasen eta prezio publikoen ⁽³⁾ bidezko dirusarrerekin noraino estaltzen den (ehunekotan)	5,23	7,31	40

- Menpekotasunaren arlorako biztanle bakoitzeko guztizko gastuak, termino arruntetan, ehuneko 2 egin du gora; 2005erako 146 eurotan ezarri da. Termino konstantetan, ordea, ehuneko 8 egin du behera.

- Menpekotasuna dutenentzako gastuak estaltzen duen barne produktu gordinaren ehunekoak, oro har, ehuneko 14 egin du behera; gastu korronteari dagokionez eta biztanle bakoitzeko, jaitsiera hori ehuneko 9koa izan da. Hau da, barne produktu gordina menpekotasunerako gastua baino gehiago hazi da.

31. Ondoko taulan bilakaera hori aztertu dugu, eta departamentuaren eta Nafarroako Gobernuaren gastuen guztizkoan izaniko bilakaerekin eginiko alderaketa ere ageri da. Ikusten denez, menpekotasuna dutenentzako gastuek beheranzko aldaketa bat izan dute gainerako aldagaiekin alderatuz gero, termino arruntetan eta termino konstantetan ere.

- Menpekotasunaren arloko gastu arrunta finantzatzeko erabiltzaileek eginiko ekarpenek ehuneko 40 egin dute gora. Igoera hori gorabehera, Nafarroako Gobernuak menpekotasunetarako gastaturiko 100 euro bakoitzeko, erabiltzaileak 7 jarri ditu.

33. Ondoko taulan konparatu ditugu –2003ko datuekin soilik– batetik menpekotasunerako gastu arruntaren adierazlea, Nafarroako barne produktu gordinarekin alderatuta, eta bestetik Europar Batasunaren herrialde batzuetako balioak. Ikusten denez, Nafarroak Espainiako batez bestekoa gainditzen du, baina haren balioa txikiagoa da Europar Batasuneko herrialdeetako baino.

(3) Ikus 2. oharra, itunen ondoriozko dirusarrereari aplikaturiko kontabilitate- eta aurrekontu-irizpideak duen eraginari buruzkoa.

Menpekotasunerako gastu korrontearen ehuneko, 2003ko barne produktu gordinaren aldean kalkulaturik	
Nafarroa	0,52
Espainia	0,32
Italia	0,7
Austria	0,9
Frantzia	1,2
Alemania	1,2
Europa Iparraldeko Herrialdeak	2,8tik 3ra

IV.9. ZAHARRAK (X gehigarria)

34. Hirugarren adinaren kontzeptupean biltzen den aurrekontu-gastua, 2005etik aurrera, NGOIren “laguntza soziosanitarioko” eta “boluntarioak, elkarteak eta programak” programetan jasotzen da funtsean; lehendik, aurrekontu-programa berariazkoa zegoen populazioaren atal honetarako. Aurreko egoeretan ez zegoen aurreikusita kotizazio gabeko pentsioen gastua.

2005ean, hirugarren adinerako gastua 20,45 milioi eurokoa izanen dela aurreikusten da; zenbatekoa hori 2002koaren oso antzekoa da –20,33 milioi euro–. Gastu horrek NGOIren gastu guztien ehuneko 18 egiten du, Nafarroako barne produktu gordinaren ehuneko 0,13 da eta 197,37 euroko per capita gastua dakar 65 urtetik gorako biztanleentzat.

Jatorriaren arabera, 2005ean NGOIk gastaturiko 100 euro bakoitzeko, honako gastuak egin dira:

Nora	Zenbatekoa
Egoitzekiko itunak	53
Egonaldietarako banakako prestazioak	16
Langile berekiak	10
Zentroetan jarduerak egiteko dirulaguntzak	6
Telefono zerbitzua	5
Bestelakoak	10
Guztira	100 euro

35. Aurreko gastua, funtsean, ondoko prestazioen katalogoari dagokio:

- Zentro berekiak eta itunduetako egonaldiak
- Besteren zentroetan egoteko prestazio ekonomikoak
- Larrialdietarako telefono-zerbitzua
- Etxez etxeko arreta emateko laguntzak
- Erretiroarengatik kotizazio gabeko pentsioak
- Bainuetxeetako programa
- Funtzionamendurako, ekipamendurako eta jarduerak sustatzeko dirulaguntzak.

36. Zaharrentzako laguntza zerbitzua zentro berekietan, zentro itunduetan eta besteren zentroetan ematen da. Egun dauden tokiak, erabiltzaileen beharren arabera, honela sailka daitezke: baliatzen direnentzako tokiak eta lagunduentzako tokiak.

Nafarroako Gobernuaren zentro berekiak El Vergel eta Santo Domingo egoitzak eta San Franzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoa dira; itun

indardunak daude, bestalde, 16 zentrorekin. Besteren zentroak, azkenik, 54 dira.

Zentro berekietako eta itunduetako egonaldietan, erabiltzaileak kasuko kuota ordaintzen du, daukan egoera pertsonal eta ekonomikoaren arabera. Besteren zentroetako egonaldietarako, eta eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat, NGOIk banakako laguntza ekonomikoak ematen ditu.

37. Itunen kudeaketa dela eta, honakoa esan behar dugu:

- Hirugarren adineko pertsonentzako egoitzetako postuak ituntzeko irizpideak ez daude berariaz jasota.

- Martxoaren 24ko 14/1998 Foru Agindua –haren bidez, zaharrentzako egoitzak egiteko zenbait proiektu Nafarroako plan gerontologikoan (1997-2000) aurreikusitako finantzaketa plantan sartzen ziren– bere ondorioetan adierazten zuen “hautaturiko entitateek NGOIri nahitaez eskaini beharko diote itunak ituntzeko aukera, dirulaguntzaren ebazpenean ezarritako ehunekoaren arabe-

ra". Nahitaezkotasun hori ez dago jasota inbertsio-etarako kapital transferentzien inongo deialditan, ez eta aztertu ditugun dirulaguntzak emateko ebazpenetan ere.

- NGOIk itunetarago gastu gisa zenbateko garbia kontabilizatzen du, hau da, itunaren kostu errealetik erabiltzaileak zentro bakoitzean ordainduta-ko zenbatekoa kendu eta ondorengoa.

- Aurreko puntua kontuan hartuta, 2005ean, itunen kostu garbiak 10,77 milioi euro egin du, hau da, 2002an baino ehuneko 9 gehiago. Zenbateko hori heldu da guztira sinaturiko 16 itunetatik: hiru

entitate publikoekin, lau irabazi asmorik gabeko erakundeekin eta bederatzi merkataritzako entitate pribatuekin.

- Moduluaren kuantifikazioan kontuan hartzen dira bai zentroaren titulartasuna bai haren ezaugarriak eta kostuaren egiturak ere; titulartasun publikoko zentroi aplikatzekoa zaien modulu gainerakoak baino txikiagoa da —ehuneko 23 txikiagoa zentro pribatuena baino eta ehuneko 3 txikiagoa irabazi asmorik gabeko erakundeena baino—, zeren eta ez amortizazioa ez finantza gastuak ez baitira kostutzat hartzen, ondoko taulan adierazten den bezala:

Titulartasuna	Moduluaren batez besteko prezioa (eurotan)	
	2002	2005
Publikoa	1.215	1.342
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	1.253	1.384
Merkataritzako pribatua	1.491	1.647

- Toki itunduen kopuruaren bilakaera eta haren tipologia ondoren islatutakoak dira. Ikusten denez, lagunduentzako tokiek itundutako toki guztien ehuneko 95 egiten dute. Guztizko kopuru horrek ehuneko 2 egin du behera 2002tik 2005era, bereziki baliatzen direnei dagozkienak.

Toki itunduen kopurua	2002	2005	Aldaketaren %
			2005/2002
Lagunduak	930	937	1
Baliatzen direnak	42	15	(64)
Guztira	972	952	(2)

- Iruñeak eta Iruñerriak lagunduen toki itunduen ehuneko 35 biltzen dituzte, guztiak merkataritzako 5 entitate pribatuk kudeatuak, salbu irabazi asmorik gabeko erakunde batek kudeatzen dituen 30 toki. Baliatzen direnentzako toki itundu gehienak Tafalla aldean biltzen dira, titulartasun publikoko egoitza batean.

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Etorkizuneko plangintza estrategikoan, behar diren oinarrizko irizpideak ezartzea zentroak kontzentratzeko eta moduluaren zenbatekoa zehazteko, bai eta, agian, zentroen inbertsioetarako laguntzak emateko baldintzetan klausula bat sartzea NGOIk haiekin tokiak itundu ahal izan ditzan.*

- *Aztertzea komenigarria den itunen kontabilitate eta aurrekontu erregistroan xehatzea, batetik, haien kostu erreala eta, bestetik, erabiltzaileen ekarpenak.*

38. Banakako prestazio ekonomikoak. Laguntza hauei buruz hauxe esan behar dugu:

- Laguntza hauen helburua da adineko pertsonak sartu ahal izatea besteren zentroetan, banakako ekarpen ekonomikoen bitartez. 65 urte baino gehiagoko pertsonen zuzenduta daude, dauzkaten ezaugarri bereziengatik edo inguruabar sozial eta familiarrengatik berariazko laguntza behar badute eta haien egoera ekonomikoa dela-eta zentroaren tarifa osoa ordaintzeko modurik ez badute. Besteren zentro horiek hauek izan daitezke: eguneko zentroak, eguneko egunaldia, lagunduen tokia, baliatzen direnen tokia.

- Oro har, ez dago toki itundu hutsik eta aldi berean zuzeneko banakako laguntza duten tokiak.

- Hilabeteko laguntza ekonomikoetan gehiengo kopuruak honakoak dira, esate baterako 2005. urterako: eguneko zentroa, hileko 479,14 euro;

lagunduen tokia, hilabeteko 751,68 euro; eta baliatzen direnen tokia, hileko 328,86 euro; balio horietatik, azpimarratu behar dugu eguneko zentroko toki bakoitzeko laguntza baliatzen direnentzako tokiaren zenbatekoa gainditzen duela. Laguntza horiek hartzen dituzten pertsonak zor bat sortuko dute NGOirekin, eta zor hori, agian, beren etorkizuneko ondasunekin ordainduko dute edo haien oinordekoek ordainduko dute oinordetza onartzerakoan. Zorrak sortze horretatik salbuetsirik daude eguneko zentroetarako laguntzak.

- Laguntza horiek NGOirentzat 3,28 milioi euroko kostua izan dute 2005ean, 2002an baino ehuneko 2 gutxiago. Kopuru honetatik, ehuneko 70 lagunduen tokiak finantzatzeko erabili dira.

- 2004an, guztira 810 laguntza eskari aurkeztu ziren; ehuneko 79ri baiezkota eman zitzaion.

- 2005ean, laguntza horien onuradunak 584 izan ziren, 2002an baino ehuneko 28; horien ehuneko 52 lagunduen tokiak dira, eta ehuneko 45 baliatzen direnen tokiak dira.

- Lagunduen tokien ehuneko 64 eta baliatzen direnen ehuneko 71 Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako barrutietan daude. Eguneko zentroei dagokierik, onuradunen ehuneko 61 Nafarroako Iparmendebaldekoak dira.

- Oro har, antzeman da toki horien ehuneko 100 beteta daudela.

39. NGOirentzat toki bereki baten gastuaren eta toki itundu baten gastuaren arteko erlazioak erakusten digu, ondorio gisa eta zerbitzuaren kalitatea aztertzeraz sartu gabe, Nafarroako Gobernuak 2005ean emaniko zuzeneko prestazioen kostua zentro itundu bateko toki bateko moduluaren kostua baino ehuneko 73 garestiago dela.

Ekitaldia	Toki bakoitzeko gastua	Modulua	Moduluaren gaineko gastua
2002	1.745,66	1.404,08	24
2005	2.678,49	1.550,67	73

40. Toki bakoitzeko gastua/modulua eta erabiltzaileak toki berekian eta toki itunduan ordainduta kuota⁽⁴⁾ alderatu eta alderaketa horren emaitza ebaluatu ondoren, hauxe antzeman dugu:

Adierazlea	2005-toki berekia		2005-toki itundua	
	Zenbatekoa	Indizea	Zenbatekoa	Indizea
Gastua/modulua tokia	2.678,49	100	1.550,67	100
Batez besteko tarifa ⁽⁵⁾	911,99	34	1.133,57	73
Batez besteko kuota ⁽⁶⁾	594,66	22	689,30	44

- Zentro berekietako batez besteko tarifa zentro itunduetakoaren ehuneko 19 da; kuotaren ehuneko, berriz, ehuneko 14 txikiagoa da.

- Zentro berekietan, kuotak gastuaren ehuneko 22 egiten du 2005ean; toki itunduetan, erabiltzaileak ordaintzen duen kuota moduluaren kostuaren ehuneko 44 da.

41. Ez dago besteren egoitzetako tokien batez besteko kostuari buruzko zenbatekorik. Hala eta guztiz ere, eskura daukagun informaziotik ondoriozta daiteke lagunduen tokietako prezioa, 2005ean, hilabeteko 1.100 eta 2.400 euro bitartekoa zela lagunduentzat eta hilabeteko 700 eta 1.600 euro bitartekoa baliatzen direnentzat. Zenba-

(4) Kontuan hartu behar da batez besteko datuak bi zentro berekietatik eta 16 zentro itunduetatik hartu ditugula, eta haietan baliatzen direnentzako eta laguntza behar dutenentzako tokien banaketa desberdina dela.

(5) Batez besteko tarifa lortu dugu NGOik finkaturiko tarifatik abiatuta eta batez bestekoa kalkulaturik, zentro berekietan eta zentro itunduetan guztira dauden tokien kopuruaren arabera; betiere, laguntza behar dutenentzako eta baliatzen direnentzako tokiak kontuan hartuta.

(6) Batez besteko kuotak zentro berekietako eta zentro itunduetako erabiltzaileek eginiko batez besteko ekarpena islatzen du.

teko horiek eta Nafarroako pentsioen batez bestekoa –750,25 euro hilabeteko– alderatuz gero, esan dezakegu pentsio horiek ez direla nahikoak besteren egoitzetako kostua ordaintzeko; hori dela eta, laguntza publikoetara jo beharra dago –banakako prestazioak, lagunduentzako gehieneko prezioa

hilabeteko 752 euro izatea eta baliatzen direnentzako gehieneko prezioa 329 eurokoa– edo/eta erabiltzailearen edo ahaideen ondarera.

42. Zaharrentzako egoitzetako tokien bilakaera. Egoitzetako tokien guztizko kopuruaren bilakaera honakoa izan da, kudeaketa motaren arabera:

Tokien kudeaketa	2002	2003	2004	2005
Berekia	398	395	459	439
Itundua (*)	906	906	940	935
Besterena	3.678	3.714	4.109	3.987
Guztira	4.982	5.015	5.508	5.361
Indizea	100	101	111	108
Zentro kopurua	74	74	75	73

(*) Nafarroako Foru Komunitateaz kanpoko toki itunduak kanpo utzita.

- Azterturiko aldian, egoitzetako tokien kopuruak ehuneko 8 egin du gora; zentro kopuruak, berriz, nolabaiteko egonkortasuna izaten jarraitzen du.

- Nafarroako Gobernuaren toki berekiek ehuneko 10 egin dute gora azterturiko aldian; itunduek, berriz, ehuneko 3, eta besterenek ehuneko 8.

- Tokien guztizko kopuruaren egiturak ezaugarri hauek dauzka: egoiliarren ehuneko 75 besteren zentroetan daude, ehuneko 17 zentro itundueta eta ehuneko 8 zentro berekietan.

- Zentroetako tokien batez besteko kopuruak honako bilakaera izan du: 67 toki 2002an eta 73 toki 2005ean.

- Tokiaren hartzailearen arabera –baliouduna edo lagundua–, 2002an baliodunen hiru toki zeuden lagunduen bi toki bakoitzeko; 2005ean, ordea, aurreko proportzioa aldatu da, lagunduen tokiak hiru direlako eta baliodunenak, berriz, bi toki.

- Zentro berekietan, baliodunen tokiak nagusi ziren 2002an; 2005ean, aldiz, kopuru handiena lagunduen tokiena da; zentro itundueta, tokiak lagunduenak dira, funtsean –ehuneko 98 2005ean. Besteren zentroetan, 2002an baliodunen

tokiek garrantzi handiagoa zuten, baina 2005ean baliodunen eta lagunduen tokiak ia maila berean daude.

- Kokapen geografikoaren eta populazioaren arabera, Iruñerriak toki guztien ehuneko 40 biltzen zuen 2002an; 2005ean, berriz, ehuneko 42 biltzen ditu; toki berekietan, ehuneko 75 inguru biltzen ditu, eta itundueta, berriz, ehuneko 40 inguru.

- 2005ean, 65 urtetik gorako Nafarroako populazioa kontuan hartuta, tokien guztizko kopuruaren betetzea ehun biztanleko 5,17koa zen, 2002an baino ehuneko 7 altuagoa. Plan gerontologikoak 65 urtetik gorako 100 pertsona bakoitzeko 5 toki aurreikusten zituen; aurreikuspen horiek honela banakatzen ziren: 2 toki lagunduentzat eta 3 toki balioduentzat. Helburu horiek azterturiko aldiarekin alderatuz gero, ikusiko dugu oro har planeko helburuak betetzen direla; tokien egiturari dagokionez, proportzioa ia alderantzizkoa da.

- 2004. urterako Nafarroaren estaldura indizea Espainiako egoerarekin alderatuz gero, ikusiko dugu Nafarroak nabarmen gainditzen duela nazioko batez bestekoa, bai eta autonomia erkidego guztiak ere, Gaztela eta Leon izan ezik.

	2004ko estaldura indizea	Indizea
Espainiako batez bestekoa	3,78	71
Nafarroa	5,33	100
Aragoi	4,46	84
Gaztela eta Leon (gehienekoa)	6,12	115
EAE	3,90	73
Errioxa	4,71	88
Galizia (gutxienekoa)	2,08	39

- 2004rako konparazioa Europar Batasunako herrialdeekin egiten badugu, ikusiko dugu Alemania kenduta guztiek Nafarroako estaldura-indizea gainditzen dutela.

	2004ko estaldura indizea	Indizea
Espainiako batez bestekoa	3,78	71
Nafarroa	5,33	100
Frantzia	6,7	126
Holanda	9,0	169
Alemania	4,1	77
Danimarka	13,0	244

43. Eguneko zentroetako tokiak. Eguneko zentroetako tokien bilakaera ondoko taulan ikus daiteke:

Tokien kudeaketa	2002	2003	2004	2005
Berekia	50	45	42	43
Itundua	71	71	91	91
Besterena	194	162	171	203
Guztira	315	278	304	337
Indizea	100	88	97	107
Zentro kopurua	16	11	16	19

- Azterturiko aldian, eguneko zentroetako toki kopuruak ehuneko 7 egin du gora. Eguneko tokiak dituzten zentroen kopuruari dagokionez, hiru gehiago jarri dira; zentroen guztizko kopurua honela banatzen da: Nafarroako Gobernuaren bi zentro bereki, lau zentro itundu eta besteren hamahiru zentro.

- Nafarroako Gobernuaren toki berekiek ehuneko 14 egin dute behera azterturiko aldian; itunduek, berriz, ehuneko 28 egin dute behera, eta besterenak ehuneko 5 hazi dira.

- Tokien guztizko kopuruaren egitura, 2002an eta motaren arabera, honakoa da: tokien ehuneko 62 besteren zentroetan eta ehuneko 38 zentro berekietan eta itunduetan; 2005ean, berriz, ehuneko 60 eta 40 dira, hurrenez hurren.

- Toki guztien ehuneko 60 inguru Iruñerrian daude. Halaber, toki bereki guztiak eskualde horretan eskaintzen dira.

- Zentroetako tokien batez besteko kopuruak honako bilakaera izan du: 20 toki 2002an eta 18 toki 2005ean.

- Nafarroako 65 urtetik gorako populazioari erreparatuta, eguneko zentroetako tokien guztizko kopuruaren estaldura maila 0,33 tokikoa da ehun

pertsona bakoitzeko; 2002an, ehuneko 0,31koa zen.

44. Hirugarren adineko zentroetako laguntzarako itxaron zerrenda.

- Behin laguntza-baliabide bateko toki baterako eskari bat onartzen denean, pertsona horrengan biltzen diren alderdi sanitarioen eta sozialen balorazio bat egiten da, eta puntuazio bat ematen zaio. Puntuazio hori da, eta ez eskariaren antzintasuna, gero tokiak esleitzeko garrantzia duen irizpidea.

- 2005ean, itxaron zerrendan dauden tokien kopurua –aurkeztu eta onartutako eskariak–, laguntza baliabide guztiei erreparatuta, 412 dira, hau da 2002an baino ehuneko 32 gutxiago. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da 2005eko abenduaren 31n guztira 252 toki harrera-prozesuan daudela, dokumentazio gehiago eskatu delako, eta baloratu gabe daudela.

- Lortutako puntuazioari erreparatuta, presakotzat jotzen dira, lagunduen kasuan, 90 puntu baino gehiagoko puntuazio soziala dutenak, eta baliodunen kasuan, 80 puntu baino gehiago dutenak. 2005eko abenduaren 31n, guztira 52 toki presakotzat jo dira, itxaron zerrendetan zeuden eskarien ehuneko 13. Presakoetatik, 20 egoitzetako lagun-

duen tokiak dira, 18 baliodunenak eta gainerakoak mota desberdinetakoak; atxikipen geografikoaren arabera, ia ehuneko 60 Iruñerrian daude, eta ehuneko 23 Lizarra aldean.

- Itxaron zerrendetako tokien ehuneko 50 inguru lagunduentzat dira, eta ehuneko 35 baliodunentzat. Azken horiek nabarmen gutxitu dira 2002tik 2005era –ehuneko 57–; lagunduen tokiak, berriz, bi ekitaldi horien artean ia berdin mantendu dira.

- Itxaron zerrendetako tokien ehuneko 74 Iruñerrikoak dira.

- Itxaron zerrendan dagoen jendeak 65 urtetik gorako Nafarroako populazioaren guztizkoan, ehuneko 0,40 da 2005ean; 2002an, berriz, ehuneko 59 ziren.

Nora	Zenbatekoa
Itunak	60
Langile berekiak	12
Lanerako prestatzeko zentroak	10
Zuzeneko laguntzak	3
Bestelakoa	15
Guztira	100 euro

46. Aurreko gastua, funtsean, ondoko prestazioen katalogoari dagokio:

- Zentro berekiak eta itunduetako egonaldiak.
- Besteren zentroetan egoteko prestazio ekonomikoak.
- Etxez etxeko arreta emateko laguntzak.
- Oinarritzko errenta eta LISMI pentsioak.
- Baliaezintasuneko kotizazio gabeko pentsioak.
- Ibilgailuak erosteko laguntzak.
- Ezohizko laguntzak.
- Funtzionamendurako, ekipamendurako eta jarduerak sustatzeko dirulaguntzak.
- Ezgaituen balorazioa eta orientazioa.

47. Ezgaituentzako laguntza zerbitzua zentro berekietan eta itunduetan ematen da, eta hiru modutakoa izan daiteke: egoitzetako tokiak, eguneko zentroa edo etxebizitza funtzionalak. Nafarroako Gobernuaren zentro berekiak San José egoitza eta Lur Gorri etxebizitza dira.

Zentro berekietako eta itunduetako egonaldietan, erabiltzaileak kasuko kuota ordaintzen du, daukan egoera pertsonal eta ekonomikoaren arabera. Besteren zentroetako egonaldietarako, eta

IV.10. EZGAITUAK (XI. gehigarria)

45. Ezgaituetan guztira eginiko gastuari dagokionez, aplikatzekoak dira 34. puntuan, NGOIren aurrekontu-programetan izandako aldaketei buruz esandakoak.

2005ean, ezgaituentzako guztizko gastua 28.12 milioi eurokoa zen –2002ko zenbatekoa baino ehuneko 29 gehiago. Gastu horrek NGOIren gastu guztien ehuneko 25 egiten du, Nafarroako barne produktu gordinaren ehuneko 0,18 da eta 897,09 euroko per capita gastua dakar ezgaituentzat.

Jatorriaren arabera, 2005ean NGOIk ezgaituetan gastaturiko 100 euro bakoitzeko, honako gastuak egin dira:

eskaten diren baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat, NGOIk banakako laguntza ekonomikoak ematen ditu.

48. Itunen kudeaketa dela eta, honakoa esan behar dugu:

- Zentroak ituntzeko irizpideak ez daude berariaz jasota.
- NGOIk itunetarako gastu gisa zenbateko garbia kontabilizatzen du, hau da, gastu erreala ken erabiltzaileak zentro bakoitzean ordaindutako zenbatekoa.
- Aurreko puntua kontuan hartuta, 2005ean, itunen kostu garbiak 16,96 milioi euro egin du, hau da, 2002an baino ehuneko 33 gehiago. Zenbateko hori kudeaketa pribatua duten titulartasun publiko eta titulartasun eta kudeaketa pribatuko 17 zentrori dagokio.

- Moduluaren determinazio zehatza ituntze prozesu bakoitzean finkatzen da, balizko erabiltzailearen ezaugarrien eta laguntza-beharren arabera eta itundu beharreko zentroaren kostuen egituraren arabera. Moduluaren batez besteko balioaren bilakaera, 2002tik 2005era bitartekoa, ondoren adierazi dugu, eta eguneko zentroei aplikatutako igoera –ehuneko 25– eta egoitzetako tokiei aplikatutakoa –ehuneko 19– nabarmendu behar da.

Prestazio mota	Batez besteko modulua (eurotan)	
	2002	2005
Egoitzetako tokiak	29.424,01	35.082,41
Eguneko zentroak	13.364,85	16.761,04
Etxebizitza funtzionalak	12.354,17	14.148,76

• Ondoren toki itunduen bilakaera agertzen dugu, egoitzetako tokiak, eguneko zentroak eta etxebizitza funtzionalak berezita. Azpimarratu beharra dago itundutako tokien guztizkoak, aztergai dugun aldian, ehuneko 13ko igoera bat izan

duela, bereziki etxebizitza funtzionalei dagokienean; tokien ehuneko 60 egoitzetako tokiak dira. Egonkortasun bat antzeman dugu, halaber, 2004ko eta 2005eko ekitaldietan guztira itundutako tokietan.

Toki kopurua	2002	2003	2004	2005
Egoitzetako tokiak	383	396	436	436
Eguneko zentroak	183	198	198	198
Etxebizitza funtzionalak eta beste	84	101	101	101
Toki itunduak, guztira	650	695	735	735

• Atxikipen geografikoaren eta populazio-atxikipenaren arabera, Iruñerriak itundutako toki guztien ehuneko 70 biltzen ditu 2005ean.

• Okupazio mailari dagokionez, nolabaiteko dispersioa antzeman bada ere, oro har itundutako egoitza tokietan ehuneko 100aren ingurukoa da; indize horren balio txikiagoak eguneko zentroetan lortzen dira.

• 2005eko maiatzaren 2an, ezgaituei laguntza ematen dieten zentro publiko itunduetako hitzarmen kolektiboa sinatu zen; haren bidez, 2005etik 2008ra titulartasun publikoko zentroak kudeatzen dituzten enpresetako langileen lan baldintzak arautu ziren. Hitzarmen horrek enpresa desberdinetan eta haien langileengan eragina badu ere, Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen du hark izenpeturiko itunduetan duen eragin ekonomikoa; haren indarraldirako, kostua 5,47 milioi eurokoa izanen da; 2005ean, kostu erreala 0,71 milioi eurokoa izan zen.

• 2005eko amaieran, errehabilitazio psikosozialeko (buruko nahaste larria) lau zentzoren kudeaketa itundu zen, guztira 230 tokitarako.

Hauxe gomendatzen dugu:

• *Etorkizuneko plangintza estrategikoan, behar diren oinarrizko irizpideak ezartzea zentroak ituntzeko eta moduluen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuz erabiltzaile mota eta laguntza beharrak.*

• *Aztertzea komenigarria den itunen kontabilitate eta aurrekontu erregistroan xehatzea, batetik,*

haien kostu erreala eta, bestetik, erabiltzaileen ekarpenak.

49. Besteren zentroetan egoteko laguntza ekonomikoak.

• Laguntza hauen xedea da buruko gaixotasun bat izan eta beren inguruabar sozial, familiar eta pertsonalengatik ingresatuta egon beha dutenen laguntza bideratzea foru erkidegoko administrazio-arenak ez diren zentroetan, betiere foru baliabide publikorik ez dagoenean. Oro har, laguntza hauek bideratzen dira foru erkidegoaz kanpoko egonaldiak diruz laguntzera.

• Laguntza hauen hartzaileak diren pertsonen honako diagnosiak dituzte, batez ere:

- Buruko gaixotasuna.
- Buruko atzerapena gehi buruko gaixotasuna.
- Buruko atzerapena gehi jokabide arazoak.

• Laguntzak hileko prestazio ekonomikoak dira; haien gehieneko zenbatekoa foru agindu bidez finantzen da. Hartara, 2005erako hileko 1.714,55 euro dira. Emandako laguntzaren zenbatekoa egoitzaren kostuaren eta eskatzailearen errentaren arabera modulutzen da.

• Laguntzak onuradunari zuzenean ordaintzen zaizkio. Hori dela eta, neurrien multzo bat ezartzen da haien aplikazio egokia bermatzeko; hartara, laguntzak emateko fasean, hautaturiko zentroaren egonaldiaren kostua ordaindu behar da; hurrengo ekitaldietarako, onuradunak bere dirusarreraren ziurtagiriak, zentroaren kostua eta aurreko ekitaldiko

ordainagiriak ordaindu izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

- Laguntza horiek 2005ean 0,94 milioi euroko kostua izan dute -2002an baino ehuneko 30 gehiago-, eta onuradunak 75 pertsona inguru izan dira, hileko batez besteko 1.044 euroko laguntzarekin.

- Onuradunen ehuneko 84 inguru foru lurraldeaz kanpoko egoitzetan ingresaturik daude, gehienak Gaztela eta Leongo erkidegoan.

Mota	Hilabeteko gastua zentro berekietan	Hilabeteko gastua zentro itunduetan	Gastuaren/kostuaren ehunekoa
Egoitza	4.648,84	2.865,87	62
Etxebizitza funtzionala	2.629,78	1.188,67	121

51. Zentro berekietako egoitza-egonaldietan, 2002an tarifak gastuaren ehuneko 44 estaltzen zuen eta kuotak, berriz, ehuneko 20; 2005ean, ehuneko 20 eta ehuneko 9 estaltzen zuten, hurrenez hurren; horrenbestez, gastuaren eta tokiaren tarifaren arteko distantzia areagotu egin da. Bestalde, kuotaren eta tarifaren arteko erlazioari dagokionez, 2002an kuotak tarifaren ehuneko 46 estaltzen zuen; 2005ean, ordea, ehuneko 47 estaltzen du; hau da, erabiltzaileak tarifa dela-eta egiten duen ahalegina edo ekarpena puntu bat igo da.

Tokien kudeaketa	2002	2003	2004	2005
Berekia	91	91	91	91
Itundua	650	695	735	735
Kanpokoak, diruz lagunduak	60	60	92	92
Guztira	801	846	918	918
Indizea	100	106	115	115

- Guztira dauden tokien kopuruak ehuneko 15 egin du gora aztertutako aldirian; hala eta guztiz ere, 2004tik 2005era ez da aldaketarik antzeman.

- Toki itunduek, ekitaldi guztietan, dauden toki guztien ia ehuneko 80 egiten dute, eta 2002tik 2005era ehuneko 13 hazi da. Toki berekiek lau ekitaldietan berdindu mantendu dira; diruz lagunduek, berriz, ehuneko 53 egin dute gora.

- Egoitza-zentroetako tokiek toki guztien ia ehuneko 64 egin dute; aztertutako aldirian ehuneko 13 egin dute gora. Eguneko zentroetako eta etxebizitza funtzionaltako tokiek ehuneko 8 eta ehuneko 34 egin dute gora, hurrenez hurren.

- Tokien ehuneko 76 Iruñerrian daude.

Laburbilduz, ezgaituentzako tokien diagnosiararen arabera, toki guztiak egoitza erakoak dira

50. NGOirentzat toki bereki baten gastuaren eta toki itundu baten gastuaren arteko erlazioak erakusten digu, ondorio gisa eta zerbitzuaren kalitatea aztertzerantz sartu gabe, Nafarroako Gobernuak 2005ean emaniko zuzeneko prestazioen kostua zentro itundu bateko toki bateko moduluaren kostua, gobernuak berak ordaintzen duena, baino ehuneko 62 garestiagoa dela; etxebizitza funtzionalen kasuan, ehuneko 121 garestiagoa da.

52. Zentro itunduetako egoitza egonaldiei dagokionez, 2005ean, tarifek hilabeteko kostuaren ehuneko 30 inguru estaltzen dute, eta kuotak ehuneko 14. Kuotak tarifaren ehuneko 50 inguru estaltzen du.

53. Ezgaituentzako laguntza tokien bilakaera. Ezgaituentzako egoitzetako tokien kopuruaren 2002tik 2005era bitarteko bilakaera honakoa izan da, kudeaketa motari erreparatuta:

(ehuneko 64), itunen bitartez finantzatzen dira (ehuneko 80) eta Iruñerrian daude (ehuneko 76).

- Minusbaliotasuna izan eta 65 urte baino gutxiago dituzten 100 biztanle bakoitzeko toki guztien betetzeari buruzko indizea ehuneko 6 inguru hazi da 2002tik 2005era: azken ekitaldi horretan, 5,10 toki dira.

- Nafarroako aurreko estaldura indizea Estatu-ko gainerako erkidegoetakoekin alderatuta, informazio zehatua dago egoitzetako tokien indizearen eta eguneko zentroetako tokien indizearen artean. Ondoko taulan jasotako emaitzak aztertuta, ondorioztatu daiteke egoitzetako tokiei dagokionez, Nafarroako indizea Espainiako bigarren handiena dela, eta Gaztela eta Leon baino ez dagoela gaineratik; eguneko zentroi dagokionez, Nafarroako zentroyen kopuruak zortzigarren lekua betetzen du autonomia erkidego guztien artean.

	2003ko estaldura indizea (egoitzak)	2003ko estaldura indizea (eguneko zentroak)
Nafarroa	3,19	1,18
Aragoi	1,76	0,91
Gaztela eta Leon (gehienekoa)	3,84	3,60
EAE	1,74	1,38
Errioxa	2,64	1,07
Andaluzia (gutxienekoa)	0,53	-
Kanariar Uharteak (gutxienekoa)	-	0,06

54. Itxaron zerrendak ezgaituentzako zentroetan. Honakoa adierazi behar dugu:

- Behin erabiltzailearen eskaria onartuta, antzemandako ezgaitasunaren arabera behar den laguntza baliabide mota zehaztuko da, dela egoitza toki bat, dela eguneko zentroa, dela etxebizitza funtzionala; halaber, aintzat hartzen da erabiltzaileak honako egoeran egoteko aukera: prestazio edo baliabideren bat hartzen ari izan eta, inguruar bar pertsonal edo sozialengatik, beste prestazio mota batera aldatu nahi izatea.

- Laguntzaren beharra zehaztuta, horretan dauden toki bete gabekak aztertzen dira; halakorik ez badago, erabiltzaileari jakinarazten zaio itxaron zerrendan jarri dutela. Hutsune bat sortzen denean, zerrendako espedienteak aztertu eta antzemandako afekzioaren arabera, tokia esleitu da, erabiltzailearen sexuaren arabera, egoera familiar eta ekonomikoaren arabera eta zentroaren kokapen geografikoaren arabera. Oro har, ez dago itxaron zerrendaren eta zentro zehatzaren arteko loturirik.

- 2005ean, 275 pertsona zeuden itxaron zerrendan, hau da, 2002an baino ehuneko 7 gutxiago. Toki horietatik, ehuneko 32 laguntza-baliabideren bat erabiltzen ari diren pertsonak dira; gainerakoak laguntza prestaziorik gabeko erabiltzaileak dira.

- Eskatzen den prestazioaren tipologiaren arabera, ehuneko 87 ezgaitu psikikoei dagokie (buruko gaixotasuna eta atzerapena). 2005aren bukaeran buruko nahaste larriak dituztenei laguntza emateko tokien ituntzeak konponbide orokorra eman ahalko dio egoera honi.

- Itxaron zerrendak 65 urtetik gorako Nafarroako populazioaren guztizkotik ehuneko 1,53 egiten du 2005ean; 2002tik behera egin du, horrenbestez -populazio horretatik ehuneko 1,78 egiten zuen-.

55. Lanerako prestatzeko zentroak

- Lanerako prestatzeko zentroen helburua da lanera bideratzeko terapiako eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko zerbitzuak ziurtatzea jasaten

duten minusbaliotasun-mailaren ondorioz enpresa batean edo enplegurako zentro berezi batean txertatzea ezinezkoa zaien ezgaituei. Zentro horiek ez dira sekula gizarte zerbitzu hori behar duten pertsonentzako lan zentrotzat hartuko.

Lanerako prestatzeko terapia da ezgaituek, beren banakako baldintzen arabera eta zentroko langile teknikarien orientabideekin, eginiko jarduerara edo lan ez-produktiboak. Terapia hau bideratuta dago modu erregularrean merkatu operazioetako xede ez diren objektu, produktu edo zerbitzuak lortzera.

Sari edo ordainsarien sistemak ezarri ahalko dira, ezgaitua zentroko jardueretan egoki integratu dadin sustatzeko. Sistema horiek NGOren Balorazio Ataleko lanbide anitzeko taldeak gainbegiratu ko ditu.

Zentro pribatuek, beren sostengurako, dirulaguntzak eskatu ahalko dizkiote administrazioari. Dirulaguntza horien deialdia ezgaitasunaren arloko irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdi orokorrean sartuko da.

- Aurrekontuen ikuspuntutik, lanerako prestatzeko zentroentzako laguntzak hiru kontusailetan erregistratuko dira: itunak, hitzarmenak eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako laguntzak.

- Irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdi orokorraren edukia aztertutik, ondoriozta dezakegu hura dirulaguntzei buruzko 8/1997 foru legean ezarritako beharkizunen arabera dela. Hala eta guztiz ere, adierazi behar dugu ezen balorazio irizpide batzuk ezarri eta kuantifikatu ziren arren, irizpide horiek ez daudela garaturik, eta ez dela adierazten, ezta ere, puntuazioa nola banatuko den; banaketa hori deialdiko ebazpen proposamenerako txostenean islatzen da, eta alde zuzenetik argitaraturik ez dauden azpi-irizpideak erabiltzen dira.

- 2005ean, 3,68 milioi euro egiten duten laguntzak eman dira -2002an baino ehuneko 30 gehiago-, eta 693 toki finantzatu dira guztira -2002an baino ehuneko 1 gehiago-. Zenbateko horiek sei

entitatearen artean banatuta daude; guztira 25 lanerako prestatzeko zentrotan.

- Tokien ehuneko 67 Iruñerrian daude.
- Toki bakoitzeko batez besteko dirulaguntzak –edo tokiak Nafarroako Gobernuarentzat duen kostuak- 2002tik 2005era ehuneko 28 egin du gora, 4.156 eurokoa izatetik 5.317 eurokoa izatera

iritsi baita. 2003ko ekitaldirako, eta Liburu Zuriaren datuen arabera, ondoko taulan Nafarroan toki bakoitzeko emaniko batez besteko dirulaguntzaren zenbatekoa konparatu dugu Estatuko gainerakoaren egoerarekin. Nafarroaren gainetik Euskal Autonomia Erkidegoa eta Madrilgo Erkidegoa daude; hala eta guztiz ere, erkidego mugakideen gainetik dago nabarmen.

	Toki bakoitzeko emaniko batez besteko dirulaguntza (eruoan) 2003an	Indizea
Nafarroa	5.168	100
Aragoi	3.908	76
Gaztela eta Leon	2.213	43
EAE	5.276	102
Errioxa	2.774	54
Madril (zenbateko handiena)	6.433	124
Kanariar Uharteak (zenbateko txikiena)	392	8

- 18tik 65 urte bitarteko ezgaituei erreparatuz gero, toki horien betetzearen ehunekoa 4,11 da 2005erako.

Honako hau gomendatzen dugu:

• *Laguntza horiek emateko araua dirulaguntzei buruzko foru lege berrian ezarritakoaren arabera egokitzea, eta hartan hautapen irizpideetan aplikatzekoak izanen diren banaketa eta esleipenerako azpi-irizpideak.*

• *Lanerako prestatzeko zentroetarako berariazko deialdi bat egiteko aukera aztertzea.*

• *Laguntza horiek urte anitzeko laguntzat hartzea komeni den aztertzea, haien funtzionamendu errealarari egokitzeko eta zentroetan egonkortasuna bermatzeko.*

• *Dirulaguntzak justifikatzeko agiri-betekizunak eta haiek egiaztatze giza baliabideak bateratzea.*

• *Agirien berrikuspen hori osatzea bestelako berrikuspen osagarriekin; esate baterako, zentroetara bisitaldiak egitea, sarien edo beken kontrola eta enplegu zentro bereziak (lan legediaren menpekoak eta Lan Departamentuaren eskumenekoak) eta lanerako prestatzeko zentroak batera dauden zentroen gaineko berariazko jarraipena egitea.*

56. 2005ean TASUBINSA lanerako prestatzeko zentroak enpresari emaniko laguntzak. Espedientea aztertuta, honakoa nabarmendu behar dugu:

- 2005ean Tasubinsari emaniko laguntzak irabazi asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzen deialdi orokorretik kanpo utzi ziren, “Lanerako prestatzeko zentroekiko hitzarmena” izeneko kon-

tusaila baitago, guztira 2,77 milioi euroko kreditua duena.

- Kontusail horren kargura ordaintzen dira soilik Tasubinsa enpresari emaniko laguntzak –harekin dagokion lankidetzaren hitzarmena dago–; horrenbestez, enpresa horrek kreditu osoa hartzen du.

Jarduteko modu hori dirulaguntzei buruzko foru legean aurreikusitako aparteko bideetan sartzen da; horretarako, txosten juridiko baten bidez arazoitzen da gizarte interesa eta helburu publiko bat lortu nahi direla.

- Emaniko zenbatekoa eta ordaindutakoa 2,77 milioi euro izan ziren, hain zuzen ere kontusaileko kreditu guztia. Tasubinsak guztira, 546 toki aurreikusten ditu, foru lurralde osoan banaturiko 13 zentroetan.

• 2002tik 2005era enpresa horrek guztira 10,51 milioi euro jaso ditu; horrenbestez, lanerako prestatzeko zentro guztiek jasotakoaren ehuneko 78 jaso zuen. Zenbateko horrekin, guztira, 2.251 toki finantzatu dira; hau da, toki guztien ehuneko 81.

- Espedientea aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu aplikatzeko den araudiaren arabera dela, oro har. Hala eta guztiz ere, ondoko alderdiak adierazi nahi ditugu:

a) Ez dago jasota 2005ean aplikatzeko den moduluaren zenbatespenaren justifikazioa. Moduluen zenbatekoa 2004koaren arabera kalkulatu da, ehuneko 3ko gehikuntzarekin.

b) Toki kopurua zehazteko, aintzat hartzen dira, aurrekontu-kredituaz gainera, tokien eskaria eta haien ezaugarriak; abenduaren 31n aurkezturiko justifikazioan, 552 toki jaso ziren.

a) Ez da ageri ordain edo sarien sistemari buruzko gainbegiratze jarduerarik egin denik.

d) Gure iritziz, kontusailak izenduna izan beharko luke, modu egokian justifikaturik badago.

e) 2005ean Tasubinsa enpresak justifikazio gisa aurkezturiko agirien artean, auditoretzaren oroitidazkia eta txostena ageri dira; txosten horren iritzia aldekoa da, salbuespen batekin: ez dago informaziorik enpresako administratzaileek Tasubinsaren helburu sozialaren jarduera-mota bera, antzekoa edo osagarria duten sozietateetan dauzkatzen kargu edo funtzioei buruz. Halaber, azpimarratzen da NGOIk eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emaniko dirulaguntzek 2005ean ustiakuntzarengatiko dirusarreraren ehuneko 31 egiten dutela, eta ustiakuntza-gastuen ehuneko 30,5 finantzatzen dutela.

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Kontusail izendun bat sortzea, edo laguntzak lanerako prestatzeko zentroetarako laguntza mota hauetarako aurrekontuko kontusail orokorrean sartzea.*

- *Aplikatzekoa den moduluaren zenbatespena kasuan kasuko txosten teknikoekin justifikatu behar da.*

- *NGOIk eta enpresa onuradunak sinaturiko lankidetzak hitzarmenean ezarritako baldintzak noraino betetzen diren aztertzea.*

IV.11. ZAHARRENTZAKO ETA EZGAITUEN-TZAKO ZENTROETAKO ZORRA AITORTZEA (IX.B gehigarria).

57. Zentro eta egoitzetan etengabe eta jarraian ematen diren zerbitzuak ordaindu behar dituzten eta, horretarako behar adinako dirusarrerarik ez izateagatik, banakako prezioa ordaintzerik ez duten pertsonak izenpetu beharko dute agiri bat, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin duten zorra, tarifaren eta egiaz ordaintzen dutenaren arteko aldea, onartuz. Zorraren kontaketa bukatuko da erabiltzaileak zerbitzuaren prestazioari amaiera ematen dionean; zorraren kobrantza bermatzeko, bermeak jar dituzan exijituko zaio, normalean hipotekarioak.

Zuzenbide publikoko dirusarrera bat da, arautan ezarrita dagoen arren, soilik hirugarren adineko zentroetan aplikatzen dena, eta ez ezgaituen zentroetan.

Gomendatzen dugu prozedura hau ezgaituen egonaldi guztietan aplikatzea, kontuan hartuta, indarreko araudian ezarrita dagoen bezala, erabiltzailearen baldintza pertsonal, familiar eta ekonomikoak.

58. 17/2000 Foru Legea aldarrikatu zenetik 2005eko abenduaren 31ra arte sorturiko zorrak 39,47 milioi euro egiten ditu –2002koaren ia bi halako– eta 2.774 espedienteri edo hirugarren adineko erabiltzailerik dagokie. Hori bai, aipatu datan, hauxe zen zor horren egoera:

Egoera	Zenbatekoa (euroak, milioitan)	Ehunekoa
Kobratutako zorra	7,17	18
Berreskuraezina den zorra	27,80	70
Kobratzeko dagoen zorra	4,50	12
Guztira	39,47	100

Hau da, bakarrik sortutako zorraren ehuneko 18 kobratu da; portzentaje hori ehuneko 12 puntu gehiagotan igo daiteke izapidetzeko fasean dagoen zorra kobratzeko kudeaketek arrakasta badute.

Berreskuraezina den zorraren barruan, berriaz sartu da erabiltzaileak ondasunik edo ondarrerik ez edukitzeagatiko deuseztatzea, bai eta beste egoera batzuk ere; esate baterako errekurtsioa aurkeztutako espedienteak, ahaideei kobratzeko dauen zenbatekoak edo bide exekutiboan kobratzeko dauen espedienteak. Azken egoera horretan, 150 espediente inguru daude, guztira 3 milioi

euroko zorra sortzen dutenak; une honetara arte, bide horren emaitzak oso txikiak izan dira, zailtasun tekniko eta juridikoen ondorioz.

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Ekonomia eta Ogasun Departamentuarekiko koordinazioa hobetzea, bide exekutiboan dauden espedienteen arazo juridiko eta teknikoak konpontze aldera.*

- *Aztertzea erabiltzailearen ondarea berreikusteko dagoen bost urteko epea zabaltzea komeni den, irudipenezko pobretzea saihesteko.*

IV.12. LARRIALDIETARAKO TELEFONO ZERBITZUA (XII. gehigarria)

59. Larrialdetarako Telefono Zerbitzua (LTZ) prebentzio eta laguntza zerbitzu bat da, segurtasuna ematen diena beren buruaz baliatzeko mugak dituzten pertsonen larrialdiko egoeretan; eguneko edozein unetan konponbideak emateko behar diren baliabideak abiarazteko bidea ematen du. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren zerbitzu osagarria da, eta foru lurralde osoan ematen da; helburua da mugak dituzten kolektibo horiek beren ingurunean gera daitezzen, bizi kalitate hoberekin. Aldi berean, baliagarria suertatzen da hain intergratzaileak ez diren eta kostu handiagoa duten beste baliabide batzuen erabilera geroratzeko; esate baterako, egoitza zentroak. Honakoei zuzenduta dago, batez ere:

a) 65 urtez gorako pertsonak, bakarrik bizi direnak edo eguneko ordu gehienetan bakarrik egoten direnak, arrisku handikoa den egoera soziosanitarioan.

b) 65 urtez gorako pertsonak, autonomia pertsonala mugatzen dien ezgaitasun bat dutenak edo zerbitzu horren bidez konpon litezkeen arazoak dituztenak.

Zerbitzua erabiltzaileak kofinantziatzen du, hilean 6 euro ordainduta. Horrelakorik ez dute ordaindu behar ondorio askotarako errenta-adi-

razle publikoa (IPREM) baino errenta txikiagoak dutenek.

2005ean, zerbitzuaren kostua 1,09 milioi eurokoa izan da –2002an baino ehuneko 33 gehiago– eta erabiltzailearen koordainketaren ondoriozko dirusarrerek guztira 0,19 milioi euro egiten dute –2002an baino ehuneko 52 gehiago.

60. Larrialdietarako Telefono Zerbitzuaren kudeaketari buruzko honako adierazleak dira garrantzitsuenak:

- Aurkezturiko eskarien ehuneko 98ri baiezkoa ematen zaie. Horrenbestez, ia ez dago itxaron zerrendarik.

- Erabiltzaileen kopuruak ehuneko 25 egin du gora 2002tik 2005era. Azken ekitaldi horretan 5.553 erabiltzaile zeuden. Erabiltzaile horietatik, ehuneko 45 Iruñerrikoak dira.

- LTZa finantzatzen duten erabiltzaileak, 2005ean, ehuneko 54 ziren –2002an baino ehuneko 10 gehiago. Baliabide horiekin, Nafarroako Gobernuak zerbitzu hori emateko duen guztizko gastuaren ehuneko 18 ordaintzen da.

- Ondoko taulan, zerbitzuaren pertsona bakoitzeko kostua eta harekin lagundutako pertsonen ehunekoa alderatzen dira, hirugarren adineko pertsonen eta ezgaituen populazioa kontuan hartuta.

	2002	2003	2004	2005
Lagundutako populazioa	4.431	4.839	5.178	5.533
Kostua/pertsona	184,76	211,99	186,68	197,25
> 65 urteko populazioa	102.730	103.200	103.382	103.637
Estaldura, ehunekotan	4,31	4,69	5,01	5,34
> 65 urteko populazioa + < 65 urteko ezgaituak	119.386	120.026	120.685	121.639
Estaldura, ehunekotan	3,71	4,03	4,29	4,55

Hirugarren adineko guztizko populazioaren gaineko estaldura, 2005ean, ehuneko 5,34 da; maila horrek puntu bat egin du gora 2002tik 2005era. 2005ean iritsitako balioak nabarmen gaitzen ditu plan gerontologikoan aurreikusitakoak; izan ere, helburu gisa jartzen zen 2000n ehuneko 3ra iristea.

Zerbitzua teorikoki zuzenduta dagoen populazioaren guztizkoan (hirugarren adina gehi 65 urtez beherako ezgaituak), estalduraren maila, 2005ean, 4,55 da; antzeman daiteke, horrenbestez, 2002tik ia ehuneko 1 egin duela gora.

61. Zerbitzu honen estalduraren egoera eta erabiltzaileak Nafarroan ordaintzen duena ondoko

taulan konparatzen da, 2003. urterako, Espainiako batez bestekoarekin, autonomia erkidego mugakideekin eta, kasua bada, balio handienak eta txikiak dituzten erkidegoekin, betiere hirugarren adinera mugaturik –horixe da eskuragarri dagoen datu bakarra-. Ikus daitekeenez, Nafarroako estaldura maila nazio mailako batez bestekoaren bikoitza da eta gainerako autonomia erkidegoetakoa baino nabarmen handiagoa da; erabiltzaileak ordaintzen duen prezio publikoari dagokionez, Nafarroa da zenbateko txikiena ordaintzen den lekua, espainiako batez bestekoa baino % 72 gutxiago hain zuzen ere.

	Estalduraren maila, hirugarren adineko populazioari begiratuta	Erabiltzaile bakoitzeko prezio publikoa (euroak/urtea)
Espainiako batez bestekoa	2,05	254
Nafarroa (kopuru handiena)	4,69	72
Aragoi	2,66	180
Gaztela eta Leon	2,54	228
EAE	2,26	88
Errioxa	1,25	430
Kanariar Uharteak (zenbateko txikiena)	0,62	–

IV.13. ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA (XIII. gehigarria)

62. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) funtsa da laguntza ekonomiko edo pertsonalak ematea 65 urtez gorako pertsonak eta ezgaituak etxean gera daitezzen, ahal diren baldintza onenetan, egoitzetara sar daitezzen saihestuz. Zerbitzu hori bi bidetatik eskaintzen da gure erkidegoan, onuradunak behar dituen laguntza-orduen arabera:

- NGOiren kargurako prestazio ekonomikoa, onuradunak etxean eguneko 2 ordu eta erdi baino laguntza gehiago behar duenean. Prestazio ekonomiko horiek Nafarroako aurrekontu orokorren kargura ordaintzen dira, eta NGOik kudeatzen ditu. Onuraduna da zerbitzu hori emanen dion pertsona kontratatzearen erantzukizuna duena. Prestazio mota hori, estatu osoan, Nafarroan baino ez dago.

- Zerbitzurako laguntza edo zuzeneko prestazioa, aipatu onuradunari arestian aipatutakoa baino laguntza behar txikiagoa aitortzen zaionean. Zuzeneko zerbitzu hori udaletako gizarte zerbitzuek kudeatzen dute, eta horiek dira zerbitzua emateko pertsonak –familia langileak- kontratzen dituztenak; toki entitateek eta NGOik –dirulaguntzen bidez- eta erabiltzaileak berak kofinantzatzen dute zerbitzua, toki entitate bakoitzak horri buruz duen berriazko ordenantzaren arabera. Halaber, NGOiri dagozkio zerbitzu horien koordinazio, ebaluazio eta jarraipen lanak.

2005ean, zerbitzu horrek 11,75 milioi euroko gastua ekarri dio Nafarroako Gobernuari –2002an baino ehuneko 13 gehiago-. Gastua honela banatzen da: 7,07 milioi prestazio ekonomikoetarako –2002ko ekitaldian baino ehuneko 11 gehiago- eta 4,68 milioi toki entitateentzako dirulaguntzetan –2002an baino ehuneko 16 gehiago.

63. Prestazio ekonomikoak emateko prozedurari buruz eginiko berrazterketatik, hobetu litezkeen hurrengo alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Ez da ageri prozedura sistematiko bat dagoenik emaniko laguntzak berraztertze, onuradunari

exijitzen zaizkion betekizunek bere horretan dirautela segurtatze aldera.

- Oro har, ez da egiaztatzen onuradunak laguntza ekonomikoa erabili duen kontzesioan zehazturiko helbururako.

Bai egiten da osasun zentroen eta oinarriko gizarte zerbitzuen bitarteko zeharkako kontrola.

Gomendatzen dugu prozedura bat diseinatzea bermatzeko funts publiko horiek eman ziren xederako baino ez direla erabiliko.

64. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kudeaketaren adierazle gisa, honako datuak azpimarratu behar ditugu:

- Aurkezturiko eskarien kopuruak pixkanaka egin du behera aztertutako aldi guztian zehar; 2005ean 888 ziren, 2002an baino ehuneko 27 gutxiago.

- Aurkezturiko eskarien ehuneko 45 onartzen dira; gutxi gorabehera beste hainbeste ezesten dira.

- Laguntza ekonomiko horien onuradun errealak 2.153 ziren 2005ean, 2002ko ekitaldian baino ehuneko 6 gehiago. Horietatik, ehuneko 20 Iruñerrikoak dira.

- Hileko laguntza ekonomikoa 349,65 eurokoa zen 2005ean –2002an baino ehuneko lau gehiago-, batez beste asteko 18,85 ordutarako –ehuneko 1 gutxiago 2002an baino.

- Zerbitzu honen estaldura maila ehuneko 2,08koa da 2005ean, hirugarren adineko populazioaren kasuan –2002an, ehuneko 1,98koa zen eta ehuneko 1,77koa menpekotasuna duen populazio guztia kontuan hartuta (hirugarren adinekoak gehi 65 urtez beherako ezgaituak) –2002an, ehuneko 1,70 izan zen.

- Nafarroako plan gerontologikoan ezarritako aurreikuspenen arabera, 2000rako bitarteko honen hirugarren adinerako estaldura maila ehuneko 1a bitarte jaitsiko zen.

65. Udaletako etxez etxeko laguntza zerbitzuari edo zuzeneko prestazioari dagokionez, kudeake-

tari buruzko ondoko adierazleak azpimarratu behar ditugu:

- Zuzeneko laguntza hauen onuradun errealak 4.569 izan ziren 2005ean –2002an baino ehuneko 44 gehiago. Horietatik, ehuneko 35 Iruñerrikoak dira. Erabiltzaile bakoitzeko orduen batez bestekoa hileko 6,73 ordukoa izan zen 2005ean.

- Zerbitzu horrek NGOIri urteko 1.022 euroko gastua ekarri dio urteko, 2005ean –2002an baino ehuneko 20 gutxiago.

- Erabiltzailearen batez besteko prestazioa –udal ordenantzen arabera ezarritakoa- urteko 269,79 eurokoa da; ehuneko 33 egin du gora 2002ko datuekin alderatuta.

- Zerbitzu honen estaldura maila ehuneko 4,41ekoa da 2005ean, hirugarren adineko populazioaren kasuan –2002an, ehuneko 3,09koa zen eta ehuneko 3,76koa menpekotasuna duen populazio guztia kontuan hartuta –2002an, ehuneko 2,66 izan zen.

- Nafarroako plan gerontologikoan aurreikusitako araber, 2000rako hirugarren adinarentzat ehuneko 5eko estaldura egonen zen; horrenbestez, 2005ean, oraindik ere ez dira aurreikuspen horiek bete.

Gure gomendioak honakoak dira:

- *NGOIk bukatu behar du udaletako etxez etzeko laguntza zerbitzurako eredu berriaren definitzea, eta hartan laguntza horiek emateko irizpideak aztertu eta udal zerbitzuak finantzatzeko plan berri bat garatu beharko du.*

- *Gizarte zerbitzuei buruzko etorkizuneko foru legearen barruan, gutxieneko eskubide batzuk bermatzea herritar guztientzat, non bizi diren alde batera utzita.*

66. Etxez etzeko laguntzako bi modalitateak eta Nafarroako plan gerontologikoarekin duten harremana kontuan hartuta, honakoa da zerbitzuen estalduraren guztizko ehunekoa, hirugarren adineko populazioari dagokionez:

Ekitaldia	Prestazio ekonomikoen estalduraren ehunekoa (hirugarren adina)	Zuzeneko laguntzen estalduraren ehunekoa (hirugarren adina)	Etxez etzeko laguntza zerbitzuaren estaldura, guztira (hirugarren adina)
2002	1,98	3,09	5,07
2005	2,08	4,41	6,49
Plan gerontologikoak 2000. urterako ezamitako helburua	1	5	6

Horrenbestez, oro har planaren helburuak bete dira etxez etzeko laguntza zerbitzua hirugarren adineko populazioari emateari dagokionez. Hala eta guztiz ere, laguntza mota bakoitzaren garrantzian, pisu handiagoa eman zaie laguntza ekonomikoari, hain zuzen ere, planean aurreikusitakoa baino pisu bikoitza.

Gomendatzen dugu aztertzea zuzeneko laguntzen eta laguntza ekonomikoen artean antzemandako desoreka egokia den.

IV.14. GIZARTE ZERBITZUEN KALITATEA ETA IKUSKAPENA (XIV. gehigarria)

67. Departamentuko Programa eta Instalazioen Kalitate eta Ikuskapen Atalak, alde batetik, hirugarren adinekoentzako eta ezgaituentzako egoitzen kontrol eta ikuskapenak egiten ditu, eta, bestetik, zentroen arduradunen eta erabiltzaileen, familien eta langileen gogobetetasun maila neurtzen du.

- Zentroen ikuskapenak. Urtero zentroi buruzko jardura plan bat egiten da; plan horretan,

alderdi orokorren berrikuspenak eta egoitza eta zentro jakin batzuen ikuskapenak biltzen dira.

- Gogobetetasun maila neurtzen da hartzaileen bi talderi zuzendutako inkestaren bitartez: 1. Erabiltzaileak, ahaideak eta zentroetako langileak eta 2. Bezeroak (entitateak, zentroak eta zerbitzuak).

68. Ikuskapenetan, berrazterketa lanen urteko emaitzek ez dute berekin ekarri urteko oroitidazki bat egitea, non planteaturiko helburuak eta lorturiko emaitzak islatuko diren. 2005eko planaren ondorioz, 197 zentro berraztertu ziren (egoitzak, apartamentuak, zentroak, klubak...); horietatik, ehuneko 80 jardura arruntak ziren eta gainerakoak gaurkotzeen, erreklamazioen eta kexen ondorioz egin ziren. Gogobetetasunari buruzko inkestei dagokienez, aldez aurretik agerian jarri behar da ISO 9002 ziurtagiriaren jarraipena alde batera utzi dela, arduradunen esanetan hartatik espero ziren onurak lortu ez direlako; 2005ean, ez da inkesta bakar bat ere egin, edukia eta hartzaileak aldatu nahi baitira.

Gomendatzen dugu urtero eginiko ikuskapen lanei buruzko oroitidazki bat idaztea, eta bertan antzemandako gune ahulak eta haiek hobetzetako konponbideak proposatzea.

V. AMAIERAKO ONDORIO GISA

Parlamentu-eskarian bilatzen dena bezain handinahia den helburu bati buruzko amaierako balorazio edo laburpena egiteko zailtasunak dauden arren, ondokoak nabarmendu behar ditugu menpekotasuna dutenak babesteko Nafarroako Gobernuak daraman politikari buruz:

- Datozen urteetan Nafarroan menpekotasuna duten herritarren kopuruak gora egingen du nabarmen, populazioaren hazkunde naturalaren ondorioz eta bizi itxaropen luzeagoaren ondorioz. Hori guztia ahaztu gabe epe laburrean immigrazioak daukan ondoria.

- Menpekotasun egoeran daudenentzako gizarte babesaren gastua 2005ean 86,43 milioi eurokoa izan da, hau da termino korronteetan 2002an baino ehuneko sei gehiago; euro konstanteetan, ordea, ehuneko lauko jaitsiera antzeman da. Biztanle bakoitzeko gastu horrek 145,63 euroko zenbatekoa egiten du, eta Nafarroako BPGaren aldean, menpekotasuna dutenentzako gatu korronteek ehuneko 0,48 egiten dute; horri dagokionez, esan beharra dago menpekotasunei buruzko etorkizuneko legean 2015erako nazio mailako BPGaren ehuneko 1 gastatzea ezarrita dagoela.

- Dauzkagun datuen arabera, menpekotasuna dutenentzako gizarte babesaren egoera Espainiakoaren batez bestekoaren gainetik dago Nafarroan. Alderaketa hori, ordea, negatiboa da Europar Batasuneko gainerako herrialdeei erreparatuz gero.

- Hirugarren adinekoentzako eta ezgaituentzako guztizko gastuaren ehuneko 50-60 inguru zentro itunduak finantzatzeko erabiltzen da, bereziki egoitza tokietarako. Halaber, antzeman da 2002tik 2005era bitartea, tokiak eskatzeko itxaron zerrendak gutxitu egin direla.

- Departamentuak eta NGOik behar diren plangintza-tresna eduki behar dituzte epe ertainean eta epe luzean menpekotasuna dutenentzako gizarte babesaren inguruko politika gidatzeko, eta urte anitzeko finantzaketa esparru bat ere aurreikusitako beharko da urteko aurrekontu-kredituei euskarria emateko. Plangintza prozesu horrek eskatzen du ukituriko sektore guztiek aktiboki parte hartzea.

- Plangintza hauek zuzendu behar dira menpekotasuna duen pertsonak –bere gaitasunen arabe-

ra– autonomia izatera eta bere etxean geratzera ahal den denbora guztian. Horretarako, aztertu behar da dauden egoitza tokien eta etxean laguntza hartzen duten pertsonen artean dagoen desoreka, bai eta baliodunentzako tokien kopuru garrantzitsua ere, hartara, etxez etxeko laguntza zerbitzuak zuzeneko laguntza ematea bultzatuko da.

- Menpekotasunaren egungo errealitatea eta etorkizunean izan daitekeena egokitu behar dira gizarte zerbitzuak arautzen dituzten arauen arabera, menpekotasunaren legeak etorkizunean ezar dezakeena ahaztu gabe. Araudiaren gaurkotzean, funtsean ondokoak hartuko dira aintzat:

- a) Menpekotasuna dutenentzako prestazio sozialen eta erabiltzaileen eskubideen katalogoa.

- b) Gizarte zerbitzuak emateko eredua.

- c) Prestazio horiek finantzatzeko eredua, bereziki prestazioaren onuradunak egin beharreko ekarpenarena.

- d) Merkataritza sektore pribatuaren eta irabazi asmorik gabeko erakundearen gaurkotze esparrua aipatu prestazioen kudeaketan.

- e) Itunak egiteko irizpideak.

- f) Exijitu daitezkeen baldintzak eta onuradunak hautatzeko baremoak.

- g) Nafarroako toki entitateek bete beharreko eginkizuna.

Txosten hau idazteko denboran, Nafarroako Gobernuak Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektua onetsi du; proiektu horretan, funtsean, aurreko iruzkinak jasota daude, bai eta plangintza estrategikoari buruzko iruzkinak ere.

- Kudeatzaileek informazio sistema bat eduki behar dute erabakiak hartzeko, aukera izan dezaten prestazioen kostuak neurtzeko, plangintzan jasotako helburuen betetze mailari buruzko jarraipenak egiteko eta antzemandako desbideratzeak zuzentzeko behar diren neurriak hartzeko. Halaber, sistema horrek tresna egokia izan behar du menpekotasuna duten pertsonen beharrezanetan etengabe gertatzen diren aldaketei egokitzeko.

- Komenigarria da, halaber, laguntza zentroi buruzko ikuskapen-jarduera bultzatzea, zentroak irekitzeko eta modu iraunkorrean kreditatzeko irizpideak ezarri eta arautuz, eta prestazioaren kalitatean eta zehapen-araubidean gutxienezko homogeneotasuna bermatuz. Ikuskapen jarduera horren barnean sartu behar dira, halaber, erabiltzaileek antzemandako kalitateari buruzko eta prestazioa-

ren garapenean inplikaturiko gainerakoei buruzko aldizkako jarraipena egitea.

- Langileria gastuek prestazio horien kostuan duten eragin handia eta zentro publiko eta pribatu-
etako langileen eskubideen eta betebeharren arautzea direla eta, gogoeta egin behar da egungo egoerari buruz.

- Ongizatearen estatuaren esparruan, kolektibitateak bere gain hartu behar ditu prestazio sozialen kostuak, baliabide ekonomiko ezagatik pertsona bakar bat ere behar duen laguntzarik gabe ez dadin gera, baina, beti ere, betebehardun nagusiak ordeztu gabe. Hori dela eta, ezgaituek edo zuzenbide zibilaren arabera haien izenean behartuak daudenek zorrak onartzearen gain eta haien errenta eta ondasunen gain behar bezalako kontrola egiten dela bermatu behar da.

- Hainbat faktore direla-eta -itunak, hitzarmenak, toki propioak (itunduak eta besterenak), eguneko zentroak, aintzat hartzeko baremoak, men-

pekotasunerako laguntza eta prestazio horiengatik erabiltzaileek ordaintzen dutena finkatzeko aniztasuna-, beharrezkoa da, batetik, sinpletzeko prozesu arrazoizko bat eta, bestetik, botere publikoek informazio osoa eta zehatza ematea Nafarroan dagoen eskaintza sozialari eta hura eskuratzeko baldintzei buruz.

- Menpekotasunaren arloan egiten den jarduerara publikoaren osagarri, laguntza neurri batzuk ezarri behar dira, bai lana eta familia uztartu ahal izateko, bai ezgaituak, beren gaitasunen arabera, lanerako prestakuntzaren eta lanaren munduan integratzeko ere.

Txosten honen arduradun den auditore Ignacio Cabeza del Salvador jaunak proposatuta egin da lan hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko urriaren 20an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA. Informazio osagarria emateko taulak

Eranskin honetan, informazio osagarria emateko ondoko taulak eskaintzen ditugu:

- 1. taula. Departamentuak aitorturiko betebeharren 2002-2005 aldiko bilakaera, kapitulu ekonomikoen arabera.
- 2. taula. Departamentuak aitorturiko eskubi-deen 2002-2005 aldiko bilakaera, kapitulu ekonomikoen arabera.
- 3. taula. Erakunde autonomoen aitorturiko betebeharren 2002-2005 aldiko bilakaera.
- 4. taula. Erakunde autonomoen aitorturiko eskubideen 2002-2005 aldiko bilakaera.
- 5. taula. Departamentuko gastuen 2002-2005 aldiko bilakaera, aurrekontu programen arabera.
- 6. taula. Aurrekontu programek departamentuaren guztizko gastuan daukaten garrantzi erlatiboa.
- 7. taula. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko organigrama (2005).
- 8. taula. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren organigrama. (2005)
- 9. taula. Departamentuaren eta NGOiren plantilla organikoen 2002-2005 aldiko bilakaera.
- 10. taula. Lanerako prestatzeko zentroentzako laguntzen 2002-2005 aldiko bilakaera.

I. taula. Departamentuak aitorturiko betebeharren 2002-2005 aldiko bilakaera, kapitulu ekonomikoen arabera (eurotan)

Departamentua/Kapitulua	Aitortutakoa			
	2002	2003	2004	2005
Nafarroako Gobernua	2.565.790.127,42	2.688.511.421,00	2.808.132.508,40	3.310.372.159,88
Departamentuaren guzt. g/ %	% 6	% 6	% 7	% 6
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Dep.	158.803.629,47	174.187.569,27	186.247.001,23	197.234.865,42
1. Langile gastuak	22.193.590,84	24.117.023,63	25.929.509,84	26.812.583,25
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	7.221.173,08	7.633.230,65	7.303.822,22	8.534.788,37
4. Transferentzia arruntak	102.524.660,32	117.859.423,21	130.042.649,22	142.194.539,41
6. Inbertsio errealak	9.188.793,58	6.474.915,95	9.508.150,17	10.607.179,86
7. Kapital-transferentziak	17.675.411,65	18.102.975,83	13.462.869,78	9.085.774,53

2. taula. Departamentuak aitorturiko eskubideen 2002-2005 aldiko bilakaera, kapitulu ekonomikoen arabera (eurotan)

Departamentua/Kapitulua	Aitorturiko eskubideak			
	2002	2003	2004	2005
Nafarroako Gobernua	2.597.510.112,14	2.654.059.166,77	2.724.000.764,84	3.383.995.243,83
Departamentuaren guzt. g/ %	% 0	% 0	% 0	% 0
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua	7.662.274,46	8.089.598,49	7.363.083,20	10.886.905,32
3. Tasak, prezio publikoak eta beste dirusamerra batzuk	5.628.969,16	6.766.459,61	6.034.563,59	8.284.968,85
4. Transferentzia arruntak	1.662.905,80	1.298.065,22	1.309.614,32	2.582.423,11
5. Ondare-dirusamerak	7.015,28	25.073,66	18.905,29	19.513,36
7. Kapital-transferentziak	363.384,22	-	-	-

3. taula. Erakunde autonomoen aitorturiko obligazioen 2002-2005 aldiko bilakaera (eurotan)

Departamentua/Organikoa/Kapitulua	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko betebeharrak
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Dep.	158.803.629,47	174.187.569,27	186.247.001,23	197.234.865,42
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	107.421.961,12	124.733.714,64	130.553.957,56	112.152.507,98
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 68	% 72	% 70	% 57
Nafarroako Emakumearen Institutua	1.558.815,81	1.536.261,42	1.531.849,88	1.655.466,38
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 1	% 1	% 1	% 1
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	21.073.114,23	20.688.992,34	22.423.354,52	20.965.828,93
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 13	% 12	% 12	% 11

4. taula. Erakunde autonomoen eskubide ekonomikoen 2002-2005 aldiko bilakaera (eurotan)

Departamentua/Programa/Kapitulua	2002	2003	2004	2005
	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Dep.	7.662.274,46	8.089.598,49	7.363.083,20	10.886.905,32
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	5.706.513,82	6.362.687,66	5.708.229,87	8.826.397,53
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 74,5	% 78,7	% 77,5	% 81,1
Nafarroako Emakumearen Institutua	134.315,13	195.027,62	171.037,24	69.962,70
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 1,8	% 2,4	% 2,3	% 0,6
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	1.652.615,71	1.511.136,12	1.432.043,12	1.596.284,69
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 21,6	% 18,7	% 19,4	% 14,7

5. taula. Departamentuko gastuen 2002-2005 aldiko bilakaera, aurrekontu programen arabera (eurotan)


Departamentua/Programa/Kapitulua	Aitorturiko betebeharrak			
	2002	2003	2004	2005
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua	158.803.629,47	174.187.569,27	186.247.001,23	197.234.865,42
900. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	12.413.139,01	12.531.811,45	17.051.299,93	17.289.879,16
1. Langile gastuak	707.697,52	807.793,19	782.637,46	1.127.523,07
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	154.508,23	157.585,89	163.801,46	191.428,73
4. Transferentzia arruntak	11.482.177,24	11.482.179,00	16.062.152,16	15.925.639,48
6. Inbertsio errealak	68.756,02	84.253,37	42.708,85	45.287,88
910. Azterlanak eta inbertsioen plangintza	16.336.599,30	14.696.789,42	14.641.697,84	13.290.889,29
1. Langile gastuak	373.759,82	426.166,13	1.859.787,37	845.909,39
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	235.248,74	211.280,74	103.949,11	41.536,18
4. Transferentzia arruntak	208.789,36	325.234,55	147.440,43	135.006,76
6. Inbertsio errealak	5.961.737,78	4.057.476,19	6.957.774,93	8.646.264,42
7. Kapital-transferentziak	9.557.063,60	9.676.631,81	5.572.746,00	3.622.172,54
920. NGOIren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	10.600.453,92	14.124.536,33	18.579.044,17	15.765.882,14
1. Langile gastuak	9.166.624,73	12.635.052,68	17.046.298,99	14.520.083,19
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	524.238,35	601.304,99	679.403,34	667.508,42
4. Transferentzia arruntak	395.856,69	423.173,00	472.191,98	201.195,98
6. Inbertsio errealak	513.734,15	465.005,66	381.149,86	377.094,55
921. Haurtzarora, gazteria eta familia	21.168.400,03	32.054.665,63	7.294.042,60	405.847,03
1. Langile gastuak	2.139.568,05	472.734,36	100.404,98	
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	693.253,00	687.535,18	358.768,71	405.847,03
4. Transferentzia arruntak	18.323.039,25	30.894.396,09	6.834.868,91	
7. Kapital-transferentziak	12.539,73			
922. Hirugarren adina	20.329.116,66	20.940.891,49	18.877.322,68	
1. Langile gastuak	3.212.372,88	2.871.669,45	1.128.202,83	
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	817.578,08	963.104,25	945.277,06	
4. Transferentzia arruntak	16.269.115,09	17.076.067,18	16.756.291,79	
7. Kapital-transferentziak	30.050,61	30.050,61	47.551,00	
923. Ezgaituak	21.799.768,42	23.535.498,41	23.677.939,30	
1. Langile gastuak	3.074.638,15	3.234.942,22	1.390.959,33	
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	410.670,80	428.512,62	470.873,69	
4. Transferentzia arruntak	18.026.145,21	19.609.147,62	21.531.330,84	
7. Kapital-transferentziak	288.314,26	262.895,95	284.775,44	
924. Komunitateari laguntza ematea	19.211.014,15	20.070.922,72	21.666.910,43	26.057.985,47
1. Langile gastuak	8.706,92	0,00		
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	571.986,09	761.520,79	80.245,45	68.823,69
4. Transferentzia arruntak	18.528.808,10	19.278.936,82	21.558.281,67	25.982.971,78
7. Kapital-transferentziak	101.513,04	30.465,11	28.383,31	6.190,00
925. Kotizazio gabeko pentsioak	14.313.207,94	14.007.200,06	13.472.618,08	13.566.668,07
4. Transferentzia arruntak	14.313.207,94	14.007.200,06	13.472.618,08	13.566.668,07
926. Familia.			27.030.921,80	
4. Transferentzia arruntak			27.030.921,80	
930. Nafarroako Emakumearen Institutua	1.558.815,81	1.536.261,42	1.531.849,88	1.655.466,38
1. Langile gastuak	355.454,19	377.371,67	312.169,99	360.759,80
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	358.030,67	328.800,78	393.392,87	567.670,77
4. Transferentzia arruntak	831.706,58	817.026,57	817.887,57	678.885,76
6. Inbertsio errealak	13.624,37	13.062,40	8.399,45	48.150,05

Departamentua/Programa/Kapitulua	Aitorturiko betebeharrak			
	2002	2003	2004	2005
940. Kirolen sustapena eta gazteen sustapena	21.073.114,23	20.688.992,34	22.423.354,52	20.965.828,93
1. Langile gastuak	3.154.768,58	3.291.293,93	3.309.048,89	3.326.408,55
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu aruntak	3.455.659,12	3.493.585,41	4.108.110,53	4.744.101,06
4. Transferentzia aruntak	4.145.814,86	3.946.062,32	5.358.663,99	6.312.711,64
6. Inbertsio errealak	2.630.941,26	1.855.118,33	2.118.117,08	1.405.185,92
7. Kapital-transferentziak	7.685.930,41	8.102.932,35	7.529.414,03	5.177.421,76
950. Familia.				24.041.034,14
1. Langile gastuak				1.244.393,98
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu aruntak				189.052,83
4. Transferentzia aruntak				22.522.390,29
6. Inbertsio errealak				85.197,04
951. Adingabearen babesa				7.839.259,54
4. Transferentzia aruntak				7.839.259,54
922. Laguntza soziosanitaria				35.983.054,31
1. Langile gastuak				2.141.984,25
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu aruntak				1.658.819,66
4. Transferentzia aruntak				32.182.250,40
7. Kapital-transferentziak				
923. Boluntarioak, elkartegintza eta programak				20.373.070,96
1. Langile gastuak				3.245.521,02
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu aruntak				
4. Transferentzia aruntak				16.847.559,71
7. Kapital-transferentziak				279.990,23

6. taula. Aurrekontu programek departamentuaren gutzitako gastuan daukaten garrantzi erlatiboa.


Departamentua/Programa/Kapitulua	Aitorturiko betebeharrak			
	2002	2003	2004	2005
9. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua	158.803.629,47	174.187.569,27	186.247.001,23	197.234.865,42
900. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	12.413.139,01	12.531.811,45	17.051.299,93	17.289.879,16
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 7,8	% 7,2	% 9,2	% 8,8
910. Inbertsioei buruzko azterlana eta plangintza	16.336.599,30	14.696.789,42	14.641.697,84	13.290.889,29
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 10,3	% 8,4	% 7,9	% 6,7
920. NGOlren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	10.600.453,92	14.124.536,33	18.579.044,17	15.765.882,14
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 6,7	% 8,1	% 10,0	% 8,0
921. Haurtzarora, gazteria eta familia	21.168.400,03	32.054.665,63	7.294.042,60	405.847,03
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 13,3	% 18,4	% 3,9	% 0,2
922. Hirugarren adina	20.329.116,66	20.940.891,49	18.877.322,68	
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 12,8	% 12	% 10,1	
923. Ezgaituak	21.799.768,42	23.535.498,41	23.677.939,30	
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 13,7	% 13,5	% 12,7	
924. Komunitateari laguntza ematea	19.211.014,15	20.070.922,72	21.666.910,43	26.057.985,47
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 12,1	% 11,5	% 11,6	% 13,2
925. Pentsio ez-kontributiboak	14.313.207,94	14.007.200,06	13.472.618,08	13.566.668,07
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 9,0	% 8,0	% 7,2	% 6,9
926. Familia.			27.030.921,80	
Departamentuaren proiektu osoaren %			14,5%	
NGOI, guztira	107.421.961,12	124.733.714,64	130.598.799,06	
930. Nafarroako Emakumearen Institutua	1.558.815,81	1.536.261,42	1.531.849,88	1.655.466,38
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 1,0	% 0,9	% 0,8	% 0,8
940. Kirolaren eta gazteriaren sustapena	21.073.114,23	20.688.992,34	22.423.354,52	20.965.828,93
Departamentuaren proiektu osoaren %	% 13,3	% 11,9	% 12,0	% 10,6
950. Familia.				24.041.034,14
Departamentuaren proiektu osoaren %				% 12,2
951. Adingabearen babesa				7.839.259,54
Departamentuaren proiektu osoaren %				% 4,0
922. Laguntza soziosanitaria				35.983.054,31
Departamentuaren proiektu osoaren %				% 18,2
923. Boluntarioak, elkartegintza eta programak				20.373.070,96
Departamentuaren proiektu osoaren %				% 10,3
NGOI, guztira (2005)				112.152.507,98
Guztira				% 100,0

7.a) taula. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko organigrama (2005)




(*) 2005eko abuztuan kendu zen


7.b) taula. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuko organigrama (2005)



8.a) taula. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren organigrama (2005)



8.b) taula. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren organigrama (2005)



(*) Maiatzaren 22ko 31/2006 Foru Dekretuaren arabera, unitate horiek hierarkikoki Menpekotasunen arloko Laguntzaren Zuzendariordetzaren pean daude

Urtea/langile mota	Gizarte Ongizate Departamentua	Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	
		Ongizatearen Institutua	Guztira
2002			
Funtzionarioak	36	499	535
Lan-kontratudunak		23	23
Langile finkoak, guztira	36	522	558
Behin-behineko lanpostuak	4	10	14
Lanpostu hutsak	6	135	141
2002, guztira	46	667	713
2003			
Funtzionarioak	44	454	498
Lan-kontratudunak		16	16
Langile finkoak, guztira	44	470	514
Behin-behineko lanpostuak	6	10	16
Lanpostu hutsak	6	180	186
2003, guztira	56	660	716
2004			
Funtzionarioak	74	409	483
Lan-kontratudunak		15	15
Langile finkoak, guztira	74	424	498
Behin-behineko lanpostuak	6	8	14
Lanpostu hutsak	13	179	192
2004, guztira	93	611	704
2005			
Funtzionarioak	55	387	442
Lan-kontratudunak		9	9
Langile finkoak, guztira	55	442	497
Behin-behineko lanpostuak	7	8	15
Lanpostu hutsak	20	196	216
2005, guztira	82	591	673

10. taula. Lanerako prestatzeko zentroentzako dirulaguntzak (2002-2005)

ENTITATEA	Zentroa	2002. URTEA		2003. URTEA		2004. URTEA		2005. URTEA	
		DIRULAGU NTZAK	Toki kopurua	DIRULAGU NTZAK	Toki kopurua	DIRULAGU NTZAK	Toki kopurua	DIRULAGU NTZAK	Toki kopurua
Amimet	Amimet	30.341,00	10	28.425,60	9	10.745,00	5	0,00	0
Elkarkide	Aranzadi	228.716,91	35	269.216,55	40	276.754,50	40	275.419,07	42
	Talluntxe	261.875,30	40	274.829,88	40	0,00	0	0,00	0
	Lizardi	0,00	0	0,00	0	378.383,36	70	481.983,37	72
Okile	Okile	6.010,12	7	6.010,00	7	6.310,50	6	6.735,50	7
Tasubinsa	Tasubinsa	2.222.327,66	575	2.830.282,82	566	2.690.973,00	564	2.771.703,00	546
Ciiganda Ferrer	El Molino	0,00	0	0,00	0	44.482,50	10	47.953,16	10
Aspace	Uxane (*)	89.290,40	16	95.036,48	16	97.697,44	16	100.628,32	16
	Guztira	2.838.561,39	683	3.503.801,33	678	3.505.346,30	711	3.684.422,42	693

(*) Aspacerekiko itun orokorraren barruan jasotako zenbatekoak

GEHIGARRIAK.**I. GEHIGARRIA. NAFARROAKO POPULAZIOARI BURUZKO ESTATISTIKA DATUAK. HIRUGARREN ADINARI ETA EZGAITUEI BURUZKO AIPAMEN BEREZIA.**

Azterturiko aldirako (2002tik 2005era), ondorio hauek atera ditugu:

I.I. NAFARROAKO POPULAZIOA

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, ekitaldi bakoitzeko urtarillaren batean, Nafarroako populazioa ondoko taulan azaldu bezala dago banatuta:

Urtea	Populazioa	Indizea
2002	569.628	100
2003	578.210	102
2004	584.734	103
2005	593.472	104

Horrenbestez, Nafarroako populazioak, azterturiko aldian, ehuneko 4,2 egin du gora.

2000-2020 aldirako, kalkulaturiko dago Nafarroako populazioak ehuneko 18,46 eginen duela gora, nazio osoaren balioetik (9,09) oso gora.

Hona datuak, biztanle tarteen arabera:

Biztanle tartea	2002	2003	2004	2005
0-14 urte	76.369	79.366	81.442	83.738
15-64	390.529	395.644	399.910	406.097
+ 65	102.730	103.200	103.382	103.637
Guztira	569.628	578.210	584.734	593.472

15 urtetik beherako populazioak ehuneko 9,6 egin du gora. 65 urtetik gorako populazioak, berriz, ia lehengo mailari eusten dio; izan ere, ehuneko 0,9ko igoera txikia izan du azterturiko aldian. 15 eta 65 urte bitarteko populazio tarteari dagokionez, ehuneko 4 egin du gora; horrek esan nahi du, lan egiteko moduan dagoen populazioak gora egin duela.

Portzentajeetara dagokionez, ondoko taulan Nafarroako 2002 eta 2005 bitarteko populazioaren osaketa alderatzen da, biztanle tarteen arabera; ohartu behar da portzentajeetan aldaketa txikia egon dela.

Biztanle tartea	2002	2005
0-14 urte	13,41	14,11
15-64	68,56	68,43
+ 65	18,03	17,46
Guztira	% 100	% 100

Azkenik, eta txosten honen xedeari dagokionez, interesgarria da labor komentatzea jaiotzeko uneko bizi-itxaropenaren adierazlea. Hartara, jaiotzeko uneko bizi-itxaropenak Nafarroan eta Espainiaren batez bestekoan etengabe egin du gora azken ekitaldietan, ondoko taulan adierazitakoaren arabera:

	1985		2002	
	Gizo-nezkoak	Emakume-nezkoak	Gizo-nezkoak	Emakume-nezkoak
Nafarroa	73,38	80,34	77,30	84,52
Espainiako batez bestekoa	73,21	79,70	76,36	82,98

Hau da, aldi horretan emakumeen jaiotzeko uneko bizi-itxaropenak 4,18 urtetan egin du gora; gizonezkoarenak, berriz, 3,92 urtetan egin du gora. Bi aldietan, Nafarroako balioa Espainiako batez bestekoaren gainetik dago.

I.2. NAFARROAKO HIRUGARREN ADINEKO POPULAZIOA

“Hirugarren adinaren” kontzeptuari atxikitako populazioa aztertzeko garaian, ondoko indizeak erabiltzen dira:

- Zahartzea.
- Gehiegi zahartzea.
- Menpekotasuna.

Aurreko indizeak osatzeko, Nafarroako 65 urtetik gorako populazioaren hazkundearen estimazio bat dago, 2020. urtera artekoa.

Lorturiko emaitzak hauexek izan dira:

Zahartze indizea

Indize hori kalkulatzeko, zenbait adierazle erabiltzen dira; honakoak dira ohikoak:

- 65 urtetik gorako populazioak Nafarroako populazioaren guztizkoan egiten duen ehunekoak.

Urtea	65 urtetik gorako pertsonen ehunekoak / Nafarroako populazioaren guztizkoak
2002	18,03
2003	17,85
2004	17,68
2005	17,46

Antzeman daitekeen bezala, ehuneko horrek behera egin du, pixka bat, azterturiko aldian.

Konparazio eraginetarako eta 2004. ekitaldiari dagokionez, Nafarroako 65 urtetik gorako populazioa –ehuneko 17,68– Estatuko batez bestekotik gora dago –ehuneko 16,80-, eta Europako Batasuneko batez bestekotik gora –ehuneko 17– eta ELGAko batez bestekotik gora –ehuneko 13,50-.

Nafarroako eskualde geografikoei erreparatu gero, eta 2004. ekitaldiari buruz ari garela, honakoa da 65 urtetik gorako populazioaren ehuneko:

Eskualdea	65 urtetik gorako pertsonen ehuneko
Ipar-mendebaldea	19,93
Ipar-ekialdea	25,60
Lizarra	22,37
Tafalla	21,33
Tutera	19,08
Iruñerria	14,78
Nafarroa, guztira	17,68

Hau da, Nafarroako batez bestekoarekin alde ratuta, ipar-ekialdeak eta Iruñerriak dispertsio handiagoa ageri dute.

- 65 urtez gorako populazioak 15 urtetik beherako populazioan egiten duen ehuneko. Honakoa da kalkulaturiko indizea:

Urtea	65 urtez gorako pertsonak / 15 urtez beherako pertsonak
2002	1,35
2003	1,30
2004	1,27
2005	1,24

Bat baino gehiago egiten duen ehuneko horrek adierazten du 65 urtez gorako populazioak 15 urtez beherakoa gaintitzen duela. Hala eta guztiz ere, beherakada jarraitu bat antzeman da aztertutiko lau urteetan zehar.

85 urtez gorako indizea

Lehenbizi, 85 urtez gorako tartea Nafarroako guztizko populazioan egiten duten ehunekoak islatzen dugu. Hartara,

Urtea	85 urtetik gorako pertsonen ehuneko / Nafarroako populazioaren guztizkoa
2002	2,18
2003	2,19
2004	2,23
2005	2,25

Ikusten denez, populazioaren guztizkoan duen garrantzia handitzen joan da aztertutiko aldian.

Konparazioaren ondorioetarako, Nafarroako 2004ko balioak –ehuneko 2,23– Espainiako batez bestekoa gaintitzen du –ehuneko 1,84. Halaber, azpimarratu behar dugu populazio tarte horrek urte batetik bestera izan duen hazkundearen tasak, azken hamar urteetan, ehuneko 0,97 izan dela Nafarroan, gainerako autonomia erkidegoez eta gure inguruko herrialdeez gainetik. Estatu Batuen hazkundeak baino ez du Nafarroakoa gaintitzen, ehuneko 1,09 izan baitzen.

Interesgarria da, bestalde, 85 urtetik gorako populazioa zati 65 urtetik gorakoa egitearen emaitza. Hona indizea:

Urtea	85 urtez gorako indizean
2002	0,12
2003	0,12
2004	0,13
2005	0,13

Horrenbestez, aztertutiko aldian 85 urtetik gorako populazioak gora egin du pixka bat 65 urtetik gorako populazioaren guztizkoaren gainean, nahiz eta haren balioa oraindik ere baxua izan erlatiboki.

Menpekotasunaren indizea

Teorikoki menpekotasuna duen populazioaren (15 urtetik beherakoa eta 65 urtetik gorakoa) eta potentzialki aktiboa den populazioaren (16 eta 64 urte bitartekoa) arteko erlazioa adierazten digu.

Adierazle horrek aztertutiko 4 urteetarako Nafarroan ematen duen emaitza ehuneko 0,64 da. Horrenbestez, potentzialki aktiboa den populazioa handiagoa da aktiboa ez dena baino.

2020 urtera arteko proiektzioak

Gizarte Ongizate Departamentuaren azterlan baten arabera⁽⁷⁾, 65 urtetik gorako eta 85 urtetik gorako populazioaren 2020. urtera arteko proiekt-

(7) Menpekotasuna duten pertsonen egoera Nafarroan (2006ko urtarrila).

zioak ondoko taulan islatzen dira, 2005eko egoerarekin alderaturik.

Ekitaldia	65 urte baino gehiago	Indizea	85 urte baino gehiago	Indizea
2005	103.637	100	13.339	100
2010	111.362	107	17.795	133
2015	118.851	115	20.657	155
2020	125.851	121	22.521	169

Ikusten denez, 65 urtetik gorako populazioak ehuneko 21era arteko hazkundea izanen du 2020. urtera bitarte. Hala eta guztiz ere, igoeraren ehuneko handiena 85 urtetik gorako populazioan proiektatzen da, zeren eta kalkulatu baita aldi horretan ehuneko 69 haziko dela.

I.3. NAFARROAN MENPEKOTASUNA DUTENEN POPULAZIOA

NGOiren Minusbaliotasunen Erregistroa da Nafarroako ezgaituen populazioa ezagutzeko tresna onena; hala eta guztiz ere, soilik islatzen ditu minusbaliotasunaren ziurtagiria duten pertsonak.

Aurreko informazioaren arabera, eta Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Mapan eta NGOiren oroitazkietan lortutakoa ere kontuan hartuta, ondokoa da ezgaituen bilakaera 2002tik 2005era:

Urtea	Ezgaitasunak dituzten pertsonak	Indizea
2002	27.882	100
2003	28.941	104
2004	30.525	109
2005	31.346	112

Hau da, aipatu erregistroaren arabera ezgaitasuna dutenen kopuruak ehuneko 12 egin du gora azterturiko aldian. Ehuneko hori Nafarroako populazioaren guztizkoak izandako igoeraren gainetik dago; hain zuzen ere, ehuneko 4 izan da igoera hori.

Ondoko taulan ezgaituen populazioak Nafarroako populazioaren guztizkoan daukan garrantzi erlatiboa islatzen da, bai eta 65 urtetik gorako populazio ezgaituak 65 urtetik gorako populazioaren guztizkoan egiten duen ehuneko ere.

Urtea	Nafarroako populazioaren guztizkoaren gaineko ehunekoa	65 urtetik gorako ezgaituek Nafarroako 65 urtetik gorako populazioan egiten duten ehunekoa
2002	4,89	10,93
2003	5,01	11,74
2004	5,22	12,79
2005	5,28	12,88

Ikusten denez, ezgaitasuna duten pertsonen ehunekoak gero eta gehiago egiten du Nafarroako populazioaren guztizkoan; ehuneko 8 egin du gora azterturiko aldian.

65 urtetik gorako Nafarroako populazioari dagokionez, antzeman da ehuneko 18 egin duela gora.

Ezgaitasuna duen Nafarroako populazioak, ehunekoei erreparatuta, honela banatzen da adinen arabera:

Adina	2002ko ehunekoa	2005eko ehunekoa
0-18 urte	4	3
19-64 urte	56	54
65 urte baino gehiago	40	43
Guztira	100	100

Hau da, 65 urtetik gorako populazio ezgaituak ehuneko 3 egin du gora 2002tik 2005era.

Ondoko taulan azaltzen dugu minusbaliotasun mota bakoitzak ezgaituen guztizkoan egiten duen ehunekoa, 2002an eta 2005ean.

Minusbaliotasun-mota	2002ko ehunekoa	2005eko ehunekoa
Hezur-artikulazioetakoa	27	25
Eritasun kronikoa	23	21
Neuromuskularra	14	14
Adimen-atzerapena	11	11
Buru-nahastea	11	14
Ikusmen-urritasuna	8	8
Entzumen-urritasuna	5	6
Adierazmen-urritasuna	1	1
Guztira	100	100

Ikus daitekeenaz, minusbaliotasun mota bakoitzak ezgaituen guztizkoan egiten duen ehunekoa antzera mantendu da.

Ezgaituen populazioak, aplikaturiko minusbaliotasun graduen arabera, ondoko taulan adierazten dira, 2002 eta 2005 ekitaldietako egoerak alderatuz.

Minusbaliotasun-maila	2002ko ehunekoa	2005eko ehunekoa
% 45 bitarte	40	40
46-65 %	29	27
66-75 %	15	16
% 75 baino gehiago	16	17
Guztira	100	100

Horrenbestez, halako egonkortasun bat dago ehunekoetan; halere antzematen da goi mailako minusbaliotasunek gora egin dutela pixka bat.

Hona foru lurraldearen barruko atxikipen geografikoa, 2004ko datuen arabera.

Ereму geografikoa	2004ko ehunekoa
Ipar-mendebaldea	8
Ipar-ekialdea	2
Lizarra	11
Tafalla	7
Tutera	13
Iruñerria	59
Guztira	100

Hau da, Iruñerrian biltzen dira ezgaituen ia ehuneko 60; antzekoa da eskualde horrek Nafarroako populazioaren guztizkoan duen pisua.

Azkenik, 2005eko abenduaren 31n erregistraturiko langabeziari dagokionez, 806 ezgaitu zeuden langabezian; horietatik, 391 daude berez, langabezi egoeran. Dena den, departamentuko iturrien arabera, kalkulatu da populazio sektore horretako benetako langabezia ehuneko 25 ingurukoa izan daitekeela, Nafarroako guztizko populazioaren –ehuneko 5 inguru– oso gainetik. Txosten hau idazteko garaian, Nafarroako Gobernuak askotariko batzorde bat sortu du 2006ko uztailean ezgaituen laneratzea sustatzeko, funtsean pertsona horiek enplegu publikoa eskuratu ahal dezaten errazteko.

II. GEHIGARRIA. AURREKONTU LIKIDAZIOAREN ANALISIA ETA BILAKAERA (2002-2005)

Gehigarri honetan ardatz hartzen dugu, funtsean, ondokoen aurrekontu likidazioaren bilakaera:

- Gizarte Ongizateko Departamentua
- Departamentuko erakunde autonomoak
- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua

II.1. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUAREN AURREKONTU LIKIDAZIO BATERATUAREN BILAKAERA (2002-2005)

Atal honetan, departamentuko aurrekontu bate-ratuei buruzko ondoko gaiak aztertzen ditugu, bertan sartuz bai departamentua bera bai haren erakunde autonomoak (Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua eta Nafarroako Emakumearen Institutua):

- Gastuen egoera: aurrekontu kapituluaren zenbatekoak, Nafarroako Gobernuaren guztizkoan egiten duten ehunekoa eta garrantzi erlatiboa.

- Berdin dirusarreraren egoerarako.
- Aurrekontuari buruzko adierazle ekonomikoak.

A. Departamentuaren aurrekontu-gastuen bilakaera (2002-2005)

Azterturiko aldiaren aitorturiko betebeharrak gastuen aurrekontua aztertuta (ikus 1. taula), ondokoa nabarmendu behar dugu:

- Departamentuan termino korranteetan egini-ko aurrekontu-gastuen guztizkoak ehuneko 24,20 egin du gora; izan ere, aitorturiko betebeharrak 158,80 milioi euro ziren 2002an, eta 197,23 milioi euro 2005ean. Epe horretan, gobernuaren guztizko gastuek ehuneko 29,02 egin dute gora.

- 2002ko euro konstanteak aintzat hartuz gero –behin inflazioaren eragina zuzenduta– departamentuko gastuen igoera ehuneko 13,10 da, hain zuzen ere Nafarroako Gobernuak izandako igoera –ehuneko 17,50– baino txikiagoa.

- Nafarroako Gobernuaren gastuen guztizkoan duen garrantzi espezifikoa dagokionez, departamentuaren gastuak ehuneko 6 inguru izaten mantentzen dira.

- Honako hau da kapitulu bakoitzak departamentuko gastuen guztizkoan daukan garrantzi erlatiboaren bilakaera:

Kapitulua	2002ko gastuen gainera ehunekoa	2005eko gastuen gainera ehunekoa
Langileria	14	14
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	4	4
Transferentzia arruntak	65	72
Gastu arruntak, guztira	83	90
Inbertsioak	6	5
Kapital-transferentziak	11	5
Kapital gastuak, guztira	17	10
Gastuak, guztira	100	100

Ikus daitekeenez, gastu arruntaren pisuak ehuneko 7 egin du gora; puntu horiek ia bat datoz transferentzia arruntaren igoerarekin. Gastu arruntaren igoera horrek berekin dakar kapital gastuen pisuak behera egitea; bereziki nabarmena da hori kapital transferentzien kapituluaren.

• Ondoko taulan departamentuaren aurrekontuko kapituluaren bilakaera –igoera nahiz jaitsiera- aztertzen dugu, termino korrontetan eta termino errealetan. Ondorioztatu daitekeen bezala, termino errealetan, gastu arruntek ehuneko 22,6 egin dute gora, funtsean transferentzia arruntek gora egin dutelako; azpimarratzekoa da, halaber, langileria gastuen igoera, ehuneko 10ekoa izan baita. Kapital gastuei dagokionez, oro har ehuneko 33,2ko jaitsiera izan bada ere, azpimarratzekoa da kapital transferentzietan ahal zaizkien gastuen ehuneko 53,2 egin dutela behera; inbertsioak, berriz, ehuneko 5,1 hazi dira.

Kapitulua	Aldaketaren %, (korrontek) 2005/2002	Aldaketaren %, 2005/2002 (konstantek)
Langileria	21	10
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	18	8
Transferentzia arruntak	39	26
Arruntak, guztira	35	23
Inbertsioak	15	5
Kapital-transferentziak	(49)	(53)
Kapital gastuak, guztira	(27)	(33)
Gastuak, guztira	24	13

Kapital-transferentzien jaitea azaldu daiteke bai 2002ko ekitaldian aurrekontu luzatua edukitzeagatik, bai era lehenengo plan gerontologikoko honelako politikak amaitzeagatik.

B. Departamentuaren aurrekontu-dirusarren bilakaera (2002-2005)

Departamentuaren dirusarren aurrekontuan aitorturiko eskubideak aztertuta (ikus 2. taula), ondokoa adierazi behar dugu:

• Aurrekontu dirusarren guztizkoak, termino korrontetan, ehuneko 42,10 egin du gora 2002tik 2005era; horren ondorioz, 7,7 milioi eta 10,9 milioi euroko eskubideak sortu dira, hurrenez hurren. Aldi horretan, gobernuaren guztizko dirusarrek ehuneko 30,3 egin dute gora. Azterketa 2002ko euro konstantetan eginez gero, departamentuko dirusarrek ehuneko 29,4 egin dute gora.

• Nafarroako Gobernuaren gastuen guztizkoan duen garrantzi espezifikoari dagokionez, departamentuaren gastuak ehuneko 0,3 inguru izaten mantentzen dira.

• Honako hau da kapitulu bakoitzak departamentuko gastuen guztizkoan daukan garrantzi erlatiboaren bilakaera:

Kapitulua	2002ko dirusarren gaineko ehunekoa	2005eko dirusarren gaineko ehunekoa
Tasak, prezioak eta bestelako dirusarrek	73	76
Transferentzia arruntak	22	24
Ondare-dirusarrek	-	-
Dirusarrera arruntak, guztira	95	100
Kapital-transferentziak	5	-
Kapital dirusarrek, guztira	5	-
Dirusarrek, guztira	100	100

Ikus daitekeenez, departamentuaren dirusarren arruntak dira; funtsean, tasa eta prezio publikoetatik eta transferentzietatik heldu dira.

• Ondoko taulan departamentuaren dirusarren aurrekontuko kapituluaren bilakaera –igoera nahiz jaitsiera- aztertzen dugu, termino korrontetan eta termino errealetan. Ikusten denez, dirusarrera arruntek ehuneko 35,8 egin dute gora, funtsean tasek eta transferentzia arruntek gora egin dutelako; ondare bidezko dirusarren igoerak, portzentualki altua izan arren, garrantzi oso txikia dauka, kopuruagatik –19.513,36 euro. Kapital-dirusarrek desagertu egiten dira 2003ko ekitalditik aurrera.

Kapitulua	Aldaketaren %, 2005/2002 (korrontek)	Aldaketaren %, 2005/2002 (konstantek)
Tasak, prezioak eta bestelako dirusarrek	47	34
Transferentzia arruntak	55	41
Ondare-dirusarrek	178	153
Dirusarrera arruntak, guztira	49	36
Kapital-transferentziak	(100)	(100)
Kapital dirusarrek, guztira	(100)	(100)
Dirusarrek, guztira	42	29

C. Aurrekontuaren adierazle ekonomikoaren bilakaera (2002-2005)

Ondoko adierazle ekonomikoak aztertu dira:

• Aurrekontuaren exekuziotik ondorioztaturiko adierazleak.

• Biztanle bakoitzeko guztizko gastua

• Biztanle bakoitzeko guztizko gastua eta Nafarroako barne produktu gordinarekin duen lotura.

• Biztanle bakoitzeko gastu arrunta eta kapital-gastua.

• Gastuen estalduraren ehunekoa.

Lortutako emaitzak horrela laburbiltzen dira:

C.1. Aurrekontuaren exekuziotik ondorioztaturiko adierazleak

Behar bezala analizatu da aurrekontuen aldaketaren ehunekoa⁽⁸⁾, haien exekuzio maila⁽⁹⁾ eta kobrantzen/ordainketen ehunekoa⁽¹⁰⁾, eta ondoko balioak lortu ditugu 2002tik 2005era bitarteko aldirako:

Ekitaldia	Aurrekontuetako gastuak		
	Aldaketaren %	Exekuzioaren %	Ordainduta, %
2002	4,6	97	77,5
2003	10,8	96	86,7
2004	1,4	97,8	81,8
2005	1,6	96,5	92,2

2002 eta 2003ko ekitaldietako aldaketan adierazleak egiten duen kopuru handia azpimarratzen dugu; funtsean zor zaio ekitaldi horietan aurrekontu luzatuak edukitzeari. Exekuzioari eta ordainketei buruzko adierazleak altutzat jotzen diren balioetan mantentzen dira.

Aurrekontuetako dirusarrerarako, ondoko taulan islatzen dira azterturiko adierazleen zenbatekoak. Nabarmentzekoa aldaketen ehuneko handia, halako moduan non ia hasieran aurreikusitako kreditu guztiek ehuneko 30 inguruko hazkundera izan duten. Exekuzio mailak, orokorrean, ehuneko 100 baino handiagoak dira, eta kobrantzak ehuneko horretatik hurbil daude.

Ekitaldia	Aurrekontu-dirusarrerak		
	Aldaketaren %	Exekuzioaren %	Ordainduta, %
2002	23,9	102,4	93,3
2003	22,9	113,5	95,8
2004	35,8	92,6	94,6
2005	33,9	125,2	99,1

C.2. Biztanle bakoitzeko guztizko gastua

Ondoko taulan azaltzen dugu departamentuak Nafarroako biztanle bakoitzeko egindako guztizko gastua, bai termino korrontetan, bai 2002ko euro konstantetan:

Ekitaldia	Biztanleko gastua		Biztanleko gastua	
	(euro korrontetan)	Indizea	(euro konstantetan)	Indizea
2002	278,78	100	278,78	100
2003	301,26	108	293,05	105
2004	318,51	114	300,21	108
2005	332,34	119	302,68	109

Termino korrontetan, departamentuak biztanleko eginiko gastuak, azterturiko aldirian, ehuneko 19,2 egin du gora; 2002ko euro konstantetan, berriz, igoera ehuneko 8,6koa da.

C.3. Nafarroako barne produktu gordinaren aldean izaniko guztizko gastua

Ondoko taulan Nafarroako barne produktu gordinaren prezio korrontetan⁽¹¹⁾ eta azterturiko aldirian azaltzen dugu, departamentuak guztira eginiko gastuarekin alderatuta:

Ekitaldia	Departamentuaren guztizko gastua/BPG (ehunekotan)
2002	1,27
2003	1,30
2004	1,30
2005	1,27

Hartara, azterturiko aldirian, adierazle hori lau ekitaldietarako ehuneko 1,3 ingurukoa da, nahiz eta 2005ean jaitsiera txikia izan; hau da, Nafarro-

(8) Aurrekontu-aldaketek hasierako kredituetan egiten duten ehunekoa.

(9) Aitorturiko betebeharrak/eskubideak behin betiko kredituetan egiten duten ehunekoa.

(10) Kobrantzek/ordainketek aitorturikoaren gainean egiten duten ehunekoa.

(11) Estatistikako Institutu Nazionalak emana.

an biztanle bakoitzeko sorturiko aberastasunetik ehuneko 1,3 inguru departamentuaren gastuetarako erabiltzen da.

Aurreko alderaketa biztanleko egiten badugu, termino korrontetan, honakoak dira lortutako emaitzak:

Ekitaldia	Biztanleko		Biztanleko bakoitzeko	
	gastua	Indizea	BPGa	Indizea
2002	278,78	100	21.948	100
2003	301,26	108	23.085	105
2004	318,51	114	24.503	112
2005	332,34	119	26.071	119

Horrenbestez, antzematen da biztanle bakoitzeko guztizko gastua, departamentuaren gaitan, biztanleko BPGaren hazkundearen gaitetik hazi dela, gutxi bada ere.

C.4. Gastu korrontea eta kapital-gastua

Biztanle bakoitzeko guztizko gastuaren adierazleak ondokoetan bana daiteke: gastu korrontekak (gastuen 1. kapitulutik 4. kapitulura) eta kapital edo inbertsio gastuak (6. eta 7. kapituluak). Azalpena erraztu beharrez, adierazle horien bilakaera baizik ez dugu islatuko, euro konstantetan. Hartara, honakoak lortuko ditugu:

Ekitaldia	Biztanleko		Biztanle bakoitzeko	
	gastu arrunta	Indizea	kapital-gastua	Indizea
2002	231,62	100	47,16	100
2003	251,70	109	41,35	88
2004	263,18	114	37,03	78
2005	272,46	118	30,22	64

Ikus daitekeenez, biztanleko gastu korrontekak (langileak, erosketak eta transferentzia arruntak) termino konstantetan ehuneko 17,6 egin du gora; kapital-gastuek edo inbertsioko gastuek, berriz, ehuneko 35,9 egin dute behera.

Halaber, gastu arruntaren guztizkoak Nafarroako BPGan egiten duen ehunekoa zehaztu dezakegu.

Ekitaldia	Gastu arrunta/BPG (ehunekotan)
2002	1,06
2003	1,12
2004	1,14
2005	1,15

Hau da, gastu arruntek Nafarroako BPGan duten garrantzi erlatiboa gradualki egin dute gora aztertutako aldirian, zeren eta 2002tik 2005era erlatzio horrek ehuneko 8,5 egin baitu gora.

C.5. Departamentuko gastuen estaldura maila

Adierazle horrek departamentuko dirusarrerak eta gastuak lotzen ditu; hau da, adierazten du dirusarrek noraino estaltzen dituzten aldirian egindako gastuak. Kontuan hartu behar da toki itunduen erabiltzaileak ekarritako dirusarrerak itunen guztizko gastutik zuzenean kentzen direla, eta, horrenbestez, ez zaizkiola dirusareren aurrekontuari egozten.

Lortutako balioak honako hauek dira:

Ekitaldia	Gastuen estaldura-maila	Indizea
2002	4,8	100
2003	4,6	96
2004	3,9	81
2005	5,5	115

Horrenbestez, 2002tik 2005era, departamentuaren dirusareren estaldura mailak ehuneko 14,6 egin du gora. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar dugu ezen, adibidez, 2005ean departamentuak gastaturiko 100 euro bakoitzeko, 5,5 euro baizik ez direla bertan sortzen; gainerakoak Nafarroako aurrekontu orokorren kargura ordaintzen dira.

Halaber, interesgarria da 3. kapituluko dirusarrek (tasak eta prezio publikoak) gastu arruntaren guztizkoan egiten duten ehunekoa alderatzea. Hau da ikusten dena:

Ekitaldia	Gastu arruntak	
	3. kapituluko dirusarrekinekin estaltzeko ehunekoa	Indizea
2002	4,3	100
2003	4,5	105
2004	3,7	86
2005	4,7	109

Hau da, aztertutako aldirian, erabiltzaileek ekarritako dirusarrek departamentuaren gastu arruntaren guztizkoaren ehuneko 4,7 estaltzen dute; estaltze-maila horrek ehuneko 9,3 egin du gora.

II.2. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUKO ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BILAKAERA OROKORRA (2002-2005)

Departamentuak ondoko erakunde autonomoak dauzka:

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI).
- Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI).
- Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI).

A. Erakunde autonomoen aurrekontu-gastuen bilakaera (2002-2005)

3. taulan, erakunde autonomo horien aurrekontu-gastuen bilakaera jasotzen da. Horri buruz, honakoa azpimarratu behar dugu:

2002tik 2004ra bitarte, erakunde autonomoek aitorturiko gastuak departamentuaren guztizko gastuaren ehuneko 83 egiten du, honako proportzioarekin: NGOIk ehuneko 68; NKGIk ehuneko 13; NEIk ehuneko 1. 2005ean aurreko proportzioa aldatu da, departamentuan Familia zuzendaritza Nagusia sortu baita; zuzendaritza horrek lehen NGOIk exekutatzeko zituen programa batzuk hartu ditu bere gain. Hori dela eta, urte horretan, NGOIk departamentuaren gastu osoaren ehuneko 57 hartzen du. Ondoko taulan aurreko bilakaera laburtzen da:

Zentroa	2002ko gastu guztian egien duen ehunekoa	2005eko gastu guztian egien duen ehunekoa
Departamentuaren zerbitzu zentralak	18	31
NGOI	68	57
NKGI	13	11
NEI	1	1
Departamentua, guztira	100	100

2002tik 2005era, erakunde autonomoen gastuak ondoko bilakaera izan dute, bai termino korrontetan bai 2002ko euro konstantetan:

Erakunde autonomoak	Aldearen % 2005/2002 (korrontea)	Aldearen % 2005/2002 (konstantea)
NGOI	4	(5)
NKGI	6	(3)
NEI	(0,5)	(9)
Erakunde autonomoak, guztira	4	(6)
Departamentua, guztira	24	13

Ikus daitekeen bezala, termino errealetan erakunde autonomo guztiek beren aurrekontu gastuetan behera egin dute, batez beste ehuneko 5,6; departamentuaren guztizkoak, berriz, ehuneko 13,1 egin du gora. Aldaketa hori justifikatzen da, neurri handi batean, Familia zuzendaritza Nagusia sortzeagatik, arestian esan bezala.

Aurrekontu gastuetako kapituluaren garrantzi erlatiboaren arabera, erakunde autonomoen aitorturiko obligazioak honela banatzen dira 2005erako:

Kapituluak /erakunde autonomoak	NGOI	NKGI	NEI
Langileria	18	16	22
Ondasun aruntak eta zerbitzuak	3	22	34
Transferentzia aruntak	79	30	41
Inbertsioak	-	7	3
Kapital-transferentziak	-	25	.
Erakunde autonomoak, guztira	% 100	% 100	% 100

Ikusten denez, erakunde autonomoen gastuak, funtsean, transferentziak dira, eta zehazkiago, transferentzia aruntak. Bigarrenik, langileria gas-

tuak azpimarratu behar ditugu. Inbertsio gastuek leku txikia dute, zeren eta inbertsio handiak departamentuak kudeatzen baititu zuzenean.

B. Erakunde autonomoen aurrekontu-dirusarreren bilakaera (2002-2005)

4. taularen barruan, erakunde autonomoen dirusarreren bilakaera agertzen dugu. Horiek azterturik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

Erakunde autonomoen aurrekontu-dirusarrek, 2004ra arte, departamentuaren dirusarrera guztien ehuneko 98 egiten zuten. 2005etik aurrera, Familia Zuzendaritzaren sorrerak eragindako berregituratzearen ondorioz, ehuneko 96raino jaitsi da, honako banaketarekin:

Zentroa	2002ko dirusarrera guztietan egiten duen ehunekoa	2005eko dirusarrera guztietan egiten duen ehunekoa
Departamentuaren zerbitzu zentralak	2	4
NGOI	74	81
NKGI	22	15
NEI	2	-
Departamentua, guztira	100	100

Ikus daitekeenez, NGOik departamentuaren dirusarrera guztietan ehuneko handi bat betetzen du, funtsean tasa eta prezio publikoen ondorioz.

2002tik 2005era, erakunde autonomoen dirusarrek ondoko bilakaera izan dute, bai termino korrontetan bai 2002ko euro konstantetan:

Erakunde autonomoak	Aldearen % 2005/2002 (korrontea)	Aldearen % 2005/2002 (konstantea)
NGOI	55	41
NKGI	(3)	(12)
NEI	(48)	(53)
Erakunde autonomoak, guztira	40	28
Departamentua, guztira	42	29

Horrenbestez, NGOIren salbuespenarekin –haren dirusarrerak departamentuaren dirusararren gainetik hazi dira-, gainerako erakunde autonomoen baliabideak sortzeko gaitasunak behera egin du.

Aurrekontu-dirusarreretako kapituluaren garrantzi erlatiboaren arabera, erakunde autonomoen aitorturiko eskubideak honela banatzen dira 2005erako:

Kapituluak /erakunde autonomoak	NGOI	NKGI	NEI
Tasak eta prezio publikoak	81	45	21
Transferentzia arruntak	19	54	79
Ondare-dirusarrerak	-	1	-
Erakunde autonomoak, guztira	% 100	% 100	% 100

Aurreko taulatik ondoriozta daitekeen bezala, NGOIren finantzaketa iturrien egituren funtsa tasa eta prezio publikoetatik ondorioztatzen diren baliabideak dira; gainerako erakunde autonomoen egitura, berriz, transferentzia arruntetan oinarritzen da.

II.3. NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN INSTITUTUAREN AURREKONTU-LIKIDAZIOAREN BILAKAERARI BURUZKO ALDERDI BEREZIAK (2002-2005)

NGOIren aurrekontu bilakaerari dagokionez, aurreko ataletan zehazturiko iruzkin eta ondorioez gainera, ondoko alderdiak azpimarratu behar ditugu, kontuan izanik aztergai dugun aldiaren antolamenduan eginiko berregituratzeak.

Hartara, ondoko taulan, garapen organikoaren arabera, 2002ko eta 2005eko ekitaldietako aitorturiko betebeharrak –milioi eurotan emanak– konparatu ditugu:

Unitate	2002 (euroak, milioitan)	2005 (euroak, milioitan)
Zuzendaritza	6,7	10,1
Administrazioa eta giza baliabideak	34,2	2,2
Familia eta zerbitzu sektorialak	10,5	-
Familia, haurtzarua eta gaztarua	2,1	-
Hirugarren adina	3,2	-
Ezinduak	3,1	-
Familia.	13,2	-
Oinarizko laguntza eta gizarteratzea	34,4	40,7
Giza baliabideak eta zerbitzu juridikoak	-	0,3
Menpekotasunaren arloko laguntza	-	58,9
NGOI, guztira	107,4	112,2

Ikus daitekeenez, aldaketa kuantitatiboez gainera, ondoko aldaketak gertatu dira NGOIren egitura organikoan:

- Familiarekin loturiko alderdiak departamentuko Familia zuzendaritza Nagusi berriari atxikirik daude.
- Menpekotasunaren arloko laguntzetan sartzen dira hirugarren adinerako eta ezgaituentzako

gastuak, bai eta populazioaren sektore horiei zuzendutako transferentziengatikoko gastuak ere –lehen Administrazioa eta Giza Baliabideak atalari egozten zitzaizkion-.

Ondoko taulan, zenbakitan, indizetan eta termino konstantetan NGOIren gastuek izan duten bilakaera azaltzen da, betiere kapitulu ekonomikoen arabera:

Kapitulua	2002	2003	2004	2005
Langileria	100	106	105	103
Ondasun aruntak eta zerbitzuak	100	111	78	85
Transferentzia aruntak	100	115	118	94
Inbertsio errealak	100	88	70	67
Kapital-transferentziak	100	73	79	60
NGOI, guztira	100	113	115	95

Ikus daitekeenez, NGOIren guztizko gastuek ehuneko 5 egin dute behera azterturiko aldian; behera egite hori langileriaren kapituluak ez gainerako guztietan antzeman da; langileriaren kapituluak, izan ere, ehuneko 3 egin du gora. Beste behin azpimarratu behar dugu NGOIren barruan izan den berregituratze organikoak aurrekontuetan izan

duen eragina, bereziki Familia zuzendaritza Nagusia sortzearen ondorioz.

NGOIren dirusarrerak bi iturritatik heldu dira: tasak eta prezio publikoak eta transferentzia arrunt bidezko dirusarrerak. Ondoko taulan, 2002ko eta 2005eko ekitaldietako aitorturiko betebeharrak –milioi eurotan emanak– konparatu ditugu:

Kapitulua	2002 (euroak, milioitan)	2005 (euroak, milioitan)
Tasak, prezioak eta bestelako dirusarrerak	4,8	7,1
Transferentzia arruntak	0,9	1,7
NGOI, guztira	5,7	8,8

Horrenbestez, azterturiko aldian, NGOIren dirusarrerak ehuneko 55 egin dute gora, bereziki transferentzia arrunten ondorioz; hala eta guztiz

ere, tasen garrantzi erlatiboa dirusarrera guztien ehuneko 81 ingurukoa da. Termino konstantetan, dirusarreraren igoera ehuneko 41ekoa da.

III. GEHIGARRIA. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUAREN AURREKONTU PROGRAMEN AZTERKETA ETA BILAKAERA (2002-2005)

Honakoak dira gehigarri honetan aztertzen diren alderdiak:

- Aurrekontu programak
- Programen aurrekontu likidazioa

III.1. AURREKONTU PROGRAMAK: JARDUEREN KOPURUA ETA DEFINIZIOA

Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontua 2002an eta 2005ean ondoko aurrekontu-programetan banatzen da.

2002ko ekitaldian, guztira 10 aurrekontu programa:

- Departamentua
- a) Departamentuaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak.
- b) Inbertsioen azterlanak eta plangintza.
 - NGOI
- a) NGOIren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak.
- b) Haurtzaroa, gazteria eta familia.
- c) Hirugarren adina.
- d) Ezgaituak.
- e) Erkidegoari laguntza ematea.
- f) Kotizazio gabeko pentsioak.
 - NEI
- a) Nafarroako Emakumearen Institutua.
 - NKGI
- a) Kirolen sustapena eta gazteen sustapena

2005ean, eta antolamenduan aldaketa batzuk egitearen emaitza gisa, aurrekontua, guztira, 12 programatan egituratzen da:

 - Departamentua
- a) Departamentuaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak.
- b) Azterlanak, plangintza eta obrak
- c) Familia.
- d) Adingabearen babesa
 - NGOI
- a) NGOIren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak.
- b) Haurtzaroa eta gazteria.

- c) Laguntza soziosanitarioa.
- d) Boluntarioak, elkartegintza eta programak
- e) Erkidegoari laguntza ematea.
- f) Kotizazio gabeko pentsioak.

- NEI

- a) Nafarroako Emakumearen Institutua.

- NKGI

- a) Kirolen sustapena eta gazteen sustapena

Aldaketa nagusiak, horrenbestez, honela laburbil daitezke:

- Familia zuzendaritza Nagusia sortu eta departamentuari atxikitzearen ondorioz, departamentuan bi programa berri sortzen dira –familia eta adingabearen babesa-, lehendik NGOIri atxikita zeudenak eta haren programen bitartez garatzen zirenak.

- 2004an, laguntza soziosanitarioko programa sortzen da, hirugarren adinaren eta ezgaituen programak batera biltzen dituen. Halaber, boluntarioak, elkarrekin eta programak programaren barruan, hirugarren adinaren eta ezgaituen arloko beste jarduketak batzuk sartzen dira.

2005ean zentratuz, ondoren laburki deskribatzen dugu programen jarduera nagusia:

- Departamentuaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak: Kontseilaritzaren, Zuzendaritza Nagusiaren eta Idazkaritza Teknikoaren, garapenerako nazioarteko lankidetzaren eta departamentu guztien garapen eta koordinazio juridiko eta ekonomikoaren funtzionamendu gastuak biltzen ditu.

- Azterlanak, plangintza eta obrak Funtsean zentratzen da gizarte zerbitzuen arloaren plangintzan eta departamentu osoaren inbertsio garrantzitsuak egitean eta jarraitzean.

- Familia. Familiari babesa emateko politika eta familia eta lana uztartzearen sustapena.

- Adingabearen babesa: administrazioak adingabeari laguntza integrala eta tutoretza ematea babesgabetasun larriko kasuetan.

- NGOIren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak: institutuko baliabideen plangintza eta parte-hartze bidezko kudeaketa eta gizarte ekintzaren oinarriko printzipioak ezartzea.

- Haurrak eta gazteak: adingabeen hezkuntza garapena erraztea eta institutuaren menpekoak diren haur eskolak garatzea.

- Laguntza soziosanitarioa: adineko pertsonen edo/eta ezgaituei laguntza integrala ematea eta

plangintzako tresna desberdinetan sartzen diren ekintzak gauzatzea.

- Boluntarioak, elkartegintza eta programak: bidea ematea zaharra bere ingurunean gera dadin ahal den denbora guztian, ezgaituaren laneratzea edo/eta lanaren bidezko gizarteratzea erraztea eta elkartegintza mugimendua sustatu eta laguntzea.

- Erkidegoari laguntza ematea, funtsean gizarteratze jardueretan, eta Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurkako plana garatzea.

- Kotizazio gabeko pentsioak: bide horretatik, behar diren pertsoneri, hirugarren adinekoak nahiz ezgaituak izan, gizarteratzea erraztea.

- Nafarroako Emakumearen Institutua: bazterkeria mota guztiak deuseztatzea eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea esparru guztietan.

Kirolen sustapena eta gazteen sustapena: kirolaren praktika zabaltzea, kirol instalazioen beharrei buruzko plangintza egitea eta gazteen arazoak alde guztietatik aintzat hartzea.

Helburuen eta adierazleen definizioari dagokionez, azterturiko aurrekontu-programek, Nafarroako Gobernuaren gainerako programek bezala, ez dute zenbatetsitako helburuen definiziorik, ez dute haien eta dagozkien aurrekontu-kredituen arteko loturarik, ez dute adierazle neurgarririk, eta ez dute, finean, helburu horien betetzeari buruzko jarraipenik.

Kontu Orokorretan eransten diren aurrekontuko oroitidazkiek eginiko gastu-jarduera nagusiak deskribatu baino ez dute egiten; ez dute, oro har, inongo jarraipenik edo azterketarik egiten helburuen betetzea dela-eta izan diren desbideratzei buruz, helburu horiei buruzko adierazleak erabiliz.

Informazio falta hori, oro har, departamentuak eta erakunde autonomoek argitaratzen dituzten oroitidazkietan konpontzen da. Gainera, NGOIk, hilerio, aginte koadro bat prestatzen du; bertan, institutuaren politiken jarraipena egiaztatzeko informazio muntaduna sartzen da⁽¹²⁾.

Bestalde, jarduera batzuk ez zaizkio egozten dagokien aurrekontu programari, eta programa orokorretan jasotzen dira. Horri dagokionez, bereziki aipagarria da inbertsio gastuak –bai inbertsio errealetan, bai kapital-transferentzietan–, haiei departamentuko eta institutuko programa orokorretan esleituriko eskumenen arabera erregistratzen direla, eta programa zehatz bati egozten zaizkiola; hartara, esate baterako, 2005ean, eta azterlanei, plangintzari eta obrei buruzko programaren barruan, 12,2 milioi egiten zuten inbertsio gastuak eta kapital-transferentziak erregistratu ziren, zentro berekietan eta bestelako programetako besteren zentroetan –bereziki hirugarren adinekoentzako eta ezgaituentzako zentroetan- eginiko inbertsioei dagozkienak.

Ez dago, ezta ere, gastu orokorrak edo/eta zeharkakoak gainerako jardueretan edo aurrekontu-programetan banatzeko irizpide bat.

III.2. PROGRAMEN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Bilakaera kuantitatiboaren azterketa mugaturik agertu da 2002tik 2005era edukian sendotasun handirik ez zuten programa batzuk bazeudelako. Hala eta guztiz ere, aipatu bilakaerari buruzko estimazioak egiten dira.

5. eta 6. taulek aurrekontu-programetako aitoruriko betebeharren bilakaera agertzen dute.

2002 eta 2005 ekitaldiak alderatuz, ikus dezakegu programa bakoitzak honelako garrantzi erlatibo duela departamentuaren gastuen guztizkoan.

(12) X. eta XI. Gehigarriak.

Programa	2002ko guztizko gastuen gaineko ehunekoa	2005eko guztizko gastuen gaineko ehunekoa
900. Departamentuko zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	8	9
910. Azterlanak, plangintza eta obrak	10	7
920. NGOren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	7	8
921. Haurtzarora, gazteria eta familia	13	-
922. Hirugarren adina	13	-
923. Ezgaituak	14	-
922. Laguntza soziosanitarioa (2005)	-	18
923. Boluntarioak, elkarteak eta programak (2005)	-	10
924. Komunitateari laguntza ematea	12	13
925. Kotizazio gabeko pentsioak	9	7
930. NEI	1	1
940. Kiroren sustapena eta gazteen sustapena	13	11
950. Familia (2005)	-	12
951. Adingabearen babesa (2005)	-	4

Laburbilduz, departamentuak gastaturiko 100 euro bakoitzak ondoko gastu-politiketan banatzen dira:

Politika	2002	2005
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	15	17
Azterlanak, plangintza eta obrak	10	7
Familia eta adingabeak	13	16
Menpekotasuna	27	28
Gizarteratzea	12	13
Kotizazio gabeko pentsioak	9	7
Emakumea	1	1
Kirola eta Gazteria	13	11
Guztira	100 euro	100 euro

Ikusten denez, departamentuaren gastu-politiketan nolabaiteko joera egonkorra mantentzen da; horiek gastuaren ia ehuneko 75 azaltzen duten lau arlo handitan oinarritzen dira: zerbitzu orokorrak, familia, menpekotasuna eta gizarteratzea.

IV. GEHIGARRIA. MENPEKOTASUNA DUTENENTZAKO GIZARTE BABESAREN ARLOKO GASTUA ETA HAREN BILAKAERA (2002-2005)

Nafarroako Gobernuak menpekotasuna dutenentzako (hirugarren adina eta ezgaituak) gizarte babesaren arloan egin beharreko gastua zehazteko, "Menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntza Espainian" izenburuko liburu zurian islaturiko ondoko zehaztapenak hartu behar dira kontuan:

- Europako Kontseiluaren menpekotasunari buruzko definizioa onartzen bada ere, ez dago adostasun bera menpekotasunaren kontzeptua

metodologikoki zehazteko, eta analisi eta azterlanetan ez da berdin interpretatzen.

- Ez dago menpekotasunen arloan egin beharreko gastu publikoaren kalkulu orokorrik.

Horregatik, txosten honetan aipatu liburu zurian garatzen den metodologia hartuko dugu abiapuntu, gastu horiei buruzko estimazio bat egiteko.

Lehenbizi, ondokoak jotzen ditugu haren osagaitzak:

- Diru bidezko prestazioak: funtsean, kotizazio gabeko pentsioak eta menpekotasuna dutenentzako diru bidezko laguntzak.

- Gizarte zerbitzuen prestazioak: egoitzetako tokiak, eguneko zentroka, etxez etxeko laguntzak, telelaguntza eta beste.

Aipatu liburu zurian bezala, laguntza fiskalak –funtsean alargun pentsioetarako osagarriak eta zaintzaileen gizarte kotizazioengatikoen kenkariak– ez dira kontuan hartu, ez eta familia eta lana uztartzeko gainerako laguntzak ere.

Gastu orokorra zenbatesteko, aurreko gehigarrian iruzkindutako menpekotasunaren arloko aurrekontu programei –ikus 5. eta 6. taulak– egotzi zaizkien gastuetatik abiatuko gara, eta, gainera, prestazio horretan eragina duten gastuen multzo bat hartzen dugu kontuan. Hau da:

- 2004ra arte, hirugarren adinerako eta ezgaituentzako programak, funtsean; 2005ean, "Laguntza soziosanitarioa eta boluntarioak, elkarteak eta programak" izeneko programak.

- Etxez etxeko arreta emateko laguntzak: ekonomikoak, 2004ra arte familiari buruzko programeetan erregistratzen direnak eta 2005ean boluntarioei buruzko programan; zeharkakoak edo familia

langileen bitarteko prestazioak, azterturiko aldiaren erkidegoari laguntza emateko programari egozten zaizkionak.

- Kotizaziorik gabeko pentsioak, dagokien aurrekontu programan jasota daudenak.

- Liburu zuriak menpekotasunen arloko gastu arruntak kalkulatzeko baditu ere, gure ustez kapital-gastuak ere jaso behar dira. Horretarako, funtsean

“Azterlanak, plangintza eta obrak” programan eta NGOiren “Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak” programan erregistratzen diren laguntza zentroentzako inbertsio eta transferentzietatik, menpekotasunari zuzenean egotzekoak direnak identifikatu dira.

Horrela kalkulaturiko gastua honakoa izanen litzateke 2002 eta 2005 bitarteko aldiari dagokionez:

- Euro korrontetan

Menpekotasunerako gizarte babesaren arloko gastua	2002 (euroak, milioitan)	2003 (euroak, milioitan)	2004 (euroak, milioitan)	2005 (euroak, milioitan)
Aurrekontu programa berariazkoak (1)	42,13	44,48	42,55	56,36
Etkez etxeko arretarako laguntza ekonomikoak (2)	6,36	6,84	6,82	-
Etkez etxeko arretarako zeharkako laguntzak (2)	4,05	4,26	4,46	4,68
Kotizazio gabeko pentsioak (2)	14,31	14,01	13,47	13,57
Kapital-gastuen kalkulua	14,86	13,02	12,08	11,82
Menpekotasuna dutenentzako gastua, guztira	81,71	82,61	79,39	86,43
Indizea	100	101	97	106

(1) Ia guztiak gastu arruntak dira, salbu eta 0,3 milioi euro, ekitaldi guztietan kapital transferentzietatik dagozkienak.

(2) Transferentzia aruntetarako gastuak.

Horrenbestez, termino arruntetan, menpekotasunerako babes sozialerako gastua 4,72 milioitan igo da 2002tik 2005era, hau da, ehuneko 5,8.

Azpitarratzekoa da, halaber, kapital gastuen ehuneko 20ko murrizketa, funtsean kapital transferentzietako gastuek behera egiteagatik sortu dena.

- Euro konstantetan:

Menpekotasunerako gizarte babesaren arloko gastua	2002 (euroak, milioitan)	2003 (euroak, milioitan)	2004 (euroak, milioitan)	2005 (euroak, milioitan)
Aurrekontu programa berariazkoak	42,13	43,27	40,11	51,33
Etkez etxeko arreta emateko laguntza ekonomikoak	6,36	6,65	6,43	-
Etkez etxeko arreta emateko zeharkako laguntzak	4,05	4,14	4,20	4,26
Kotizazio gabeko pentsioak	14,31	13,63	12,70	12,36
Kapital-gastuen kalkulua	14,86	12,67	11,39	10,77
Menpekotasuna dutenentzako gastua, guztira	81,71	80,36	74,83	78,72
Indizea	100	98	92	96

2002ko euro konstantetan, Nafarroako Gobernuak gizarte babesaren arloan eginiko gastuek ehuneko 3,7 egin dute behera 2002tik 2005era.

Ondoko taulan, 2002. eta 2005. urteetan ezgaituentzako gizarte babesaren arloko gastuetan izandako aldaketa, departamentuaren gastuen aldaketa eta Nafarroako Gobernuaren guztizko gastuek izaniko aldaketak konparatzen dira (euro konstanteetan eta korranteetan):

	2005/2002 aldaketa, ehunekotan
Menpekotasuna dutenentzako gastua	
Korrontea	6
Konstantea	(4)
Departamentuaren gastua	
Korrontea	24
Konstantea	13
Nafarroako Gobernuaren gastua	
Korrontea	29
Konstantea	17

Ikusten denez, menpekotasuna dutenentzako gastuek beheranzko aldaketa bat izan dute gainerrako aldagaiekin alderatuz gero, termino arruntetan eta termino konstantetan ere.

Behin menpekotasuna dutenentzako gastua bukatu, ondoko adierazleak eta 2002 eta 2005 bitartean izan duten bilakaera kalkulatu dugu:

- Gizarte babesaren arloko gastua, menpekotasuna egoeran daudenentzat, biztanle bakoitzeko.

Menpekotasuna dutenentzako gastua, Nafarroako biztanle bakoitzeko, ondoko taulan islatzen da, bai euro korrontetan bai 2002ko euro konstantetan ere.

Ekitaldia	Biztanle bakoitzeko gastua, menpekotasunaren arlorako (euro korrontetan)	Indizea	Biztanle bakoitzeko gastua, menpekotasunaren arlorako (euro konstantetan)	Indizea
2002	143,44	100	143,44	100
2003	142,87	99	139	97
2004	135,77	95	128	89
2005	145,63	102	132,6	92

Termino korrontetan, menpekotasuna dutenentzat biztanle bakoitzeko eginiko gastuak, aztertutako aldian, ehuneko 1,5 egin du gora; 2002ko euro konstantetan, berriz, gastuak ehuneko 7,6 egin du behera.

- Menpekotasuna dutenentzako gizarte babesaren arloko gastua, Nafarroako BPGarekin alderatuta.

Aztertutako aldian eta prezio korronteak erabiliz Nafarroako BPGaren eta menpekotasuna dutenentzako gastuaren arteko erlazioa ondoko adierazle bitartez azal daiteke.

Hartara, lehenbizi, menpekotasuna dutenentzako guztizko gastuaren eta Nafarroako BPGaren arteko erlazioa aztertuko dugu. Hona lortutako emaitzak:

Ekitaldia	Menpekotasuna dutenentzako gastua biztanleko (eurotan)		BPGa biztanleko (eurotan)	
	Indizea	Indizea	Indizea	Indizea
2002	143,44	100	21.948	100
2003	142,87	99	23.085	105
2004	135,77	95	24.503	112
2005	145,63	102	25.986	119

Hau da, biztanle bakoitzeko BPGa ehuneko 18,4 hazi den bitartean, menpekotasuna dutenentzako biztanle bakoitzeko gastuaren igoera ehuneko 1,5 baino ez da izan.

Menpekotasuna dutenentzako guztizko gastuak BPGaren egiten duen ehuneko

Ekitaldia	Menpekotasuna dutenentzako guztizko gastuak BPGaren egiten duen ehuneko
2002	0,65
2003	0,62
2004	0,55
2005	0,56

Ikusten denez, horrenbestez, halako atzeratze bat dago adierazle horren balioan, eta horrek berresten du Nafarroaren BPGaren ehuneko txikiago bat erabiltzen dela menpekotasunaren arloko gizarte babesarekin lotutako gastuetara. Edo, bestela, dagoen erlazioak behera egin duela ekitaldi hauetan menpekotasunerako gastuak, BPGaren aldean, igoera txikiagoa izan duelako.

Ondoko taulan, bi magnitude horien arteko erlazioa ematen dugu, oraingoan biztanle bakoitzeko.

- Biztanle bakoitzeko menpekotasunerako gastu arrunta eta kapital-gastua.

Biztanle bakoitzeko menpekotasunaren arloko guztizko gastuaren adierazleak ondokoetan banatu daitezke: gastu korronteak (gastuen 1. kapitulutik 4. kapitulura) eta kapital edo inbertsio gastuak (6.

eta 7. kapituluak). Azalpena erraztu beharrez, adierazle horien bilakaera baizik ez dugu islatuko, euro konstantetan. Hartara,

Ekitaldia	Biztanle bakoitzeko gastu arrunta, menpekotasunaren arlorako (euro konstantetan)	Indizea	Biztanle bakoitzeko kapital gastua, menpekotasunaren arlorako (euro konstantetan)	Indizea
2002	116,83	100	26,61	100
2003	116,58	100	22,42	84
2004	108,01	93	19,96	75
2005	114	98	18,60	70

Hau da, aztergai dugun aldiaren biztanle bakoitzeko gastu arruntak ehuneko 2,4 egin du behera; kapital edo inbertsio gastuek, berriz, ehuneko 30 egin dute behera.

• Menpekotasunaren arlorako gastu arrunta, barne produktu gordinarekin eta nazioko nahiz nazioarteko mailarekin konparaturik.

Konparazioaren ondorioetarako, berdin interesgarria da menpekotasunaren arlorako gastu arruntaren guztizkoaren eta barne produktu gordinaren arteko erlazioa; halaber, zenbatekoak Espainian lorturikoekin konparatu ditugu⁽¹³⁾. Eraitza honako hau da:

Ekitaldia	Menpekotasunerako gastu korrontearen ehunekoa, Nafarroako barne produktu gordinaren aldean kalkulaturik	Menpekotasunerako gastu korrontearen ehunekoa, Espainiako barne produktu gordinaren aldean kalkulaturik
2002	0,53	0,30
2003	0,52	0,32
2004	0,47	0,36
2005	0,48	daturik ez

Ikus daitekeenez, menpekotasunaren arlorako gastua, Nafarroako Gobernuaren barne produktu gordinarekin kalkulaturik, handiagoa da Espainiako administrazio publikoen guztizkoan –estatukoa eta autonomia erkidegoetakoak– lortutakoa baino; halere, jaitsiera bat antzeman dugu aztertutako aldiaren azken batean, Nafarroako Gobernuak aipatu administrazio publikoek baino barne produktu gordinaren ehuneko handiagoa gastatzen du menpekotasunaren arloan.

Erreferentzia gisa, gehitu behar dugu onetsiko den Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legean, helburu gisa ezarrita dagoela 2015erako Menpekotasunaren Sistema Nazionalari ematea estatuko barne produktu gordinaren ehuneko bat.

2003. urterako Europako beste herrialde batzuetako adierazle horri buruzko informazioa daukagu. Hartara,

Menpekotasunerako gastu korrontearen ehunekoa, 2003ko barne produktu gordinaren aldean kalkulaturik

Nafarroa	0,52
Espainia	0,32
Italia	0,7
Austria	0,9
Frantzia	1,2
Alemania	1,2
Europa Iparraldeko Herrialdeak	2,8-3

Horrenbestez, Nafarroa, Espainiako batez bestekoa gaingitzen badu ere, menpekotasunaren arlorako gastuan Europako batez bestekoaren azpitik dago.

• Menpekotasunaren arlorako gastuen estaldura maila.

Adierazle horrek menpekotasunaren arloko dirusarrera publikoak eta gastuak lotzen ditu; hau

(13) Aipaturiko "Menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntza Espainian" izenburuko liburu zuriaren arabera.

da, adierazten du dirusarrera propioek noraino estaltzen dituzten aldiaren eginiko gastuak.

Ondoko zenbateko eta adierazleak zehazterakoan, kontuan hartu behar da itunen erregistroan aplikaturiko kontabilitate- eta aurrekontu-irizpidea: aurrekontuari egozten zaizkio –kopuru garbia, beti-

ere; hau da, erabiltzaileen ekarpenak kendu eta ondoren-. Horrenbestez, aurrekontu bidezko dirusarrerak azpi baloratuta daude.

Ondokoak dira ekitaldi hauetan menpekotasuna dutenei zuzenean esleituriko dirusarrerak (euroak milioitan):

Ekitaldia	Tasak eta prezio publikoak (euroak, milioitan)	Transferentzia arruntak (euroak, milioitan)	Guztira (euroak, milioitan)
2002	3,48	0,68	4,16
2003	4,64	0,49	5,13
2004	4,08	0,45	4,53
2005	5,43	0,37	5,80

Dirusarrera horiek menpekotasunerako babes sozialean eginiko gastuen guztizkoarekin konparatuta, ondoko estaldura maila lortuko dugu:

Ekitaldia	Menpekotasunaren arloko dirusarrera publikoekin menpekotasunaren arlorako gastuak estaltzearen maila	Indizea
2002	5,09	100
2003	6,21	122
2004	5,71	112
2005	6,71	132

Horrenbestez, 2002tik 2005era, menpekotasunaren arloko zerbitzuetatik heldu diren dirusarren estaldura mailak ehuneko 31,8 egin du gora. Igoera hori gorabehera, 2005ean departamentuak menpekotasunaren arlorako gastaturiko 100 euro bakoitzeko, 6,71 euro baizik ez ziren arlo horretan

sortzen. Gainerakoak Nafarroako Gobernuaren baliabide orokorrekin finantzatzen dira.

Halaber, menpekotasunaren arloko gastu arruntaren estalduraren ehunekoa 3. kapituluko dirusarrerekin (tasak eta prezio publikoak) konparatu daiteke, edo bestela erabiltzaileak zuzenean sorturiko dirusarrerekin. Hau da ikusten dena:

Ekitaldia	Menpekotasunaren arloko gastu arruntak 3. kapituluko dirusarrerekin estaltzeko ehunekoa	Indizea
2002	5,23	100
2003	6,70	128
2004	6,09	116
2005	7,31	140

Hau da, azterturiko aldiaren, erabiltzaileek ekarritako dirusarrerekin menpekotasunaren arloko gastu arruntaren guztizkoaren ehuneko 7,31 estaltzen dute; estaltze-maila horrek ia ehuneko 40 egin du gora azterturiko aldiaren.

V. GEHIGARRIA. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

Gaur egun, departamentuak ez du garatu beharreko jardueraren plan estrategiko orokorrik egin; hala eta guztiz ere, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuan –2006ko irailean onetsia-, aurreikusita dago dokumentu hori urtebeteko epean egitea.

Hala eta guztiz ere, gizarte arloko politika jakin batzuei buruzko plan eta ebaluazio batzuk badaude. Txosten honen xedea denean zentratu, honakoak azpimarratu behar dira:

- Nafarroako lehen plan gerontologikoa (1997-2000). 2000n bukatu bazen ere, gaur arte jarraitu da jarraipen-adierazleak zehazten.

- Nafarroako II. plan gerontologikoa egiteko oinarritzko diagnosia eta eskariari buruzko azterlan (2005eko abendua).

- Nafarroako gizarte zerbitzuen mapa (2005eko abendua).

- Menpekotasuna duten pertsonen egoera Nafarroan (2006ko urtarrila).

- Hirugarren adineko pertsonen Nafarroan laguntza emateko politikei buruzko ebaluazio txostena (2005eko abuztua).

Aurreko azterlanen analisi orokorra hirugarren adinekoei eta ezgaituei buruzko gehigarrietan jasota dago.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	